

# “ZER KONTATUKO DIDAZU?”

Literatur testua. Narrazioa



HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATURAKO  
MATERIALAK

DBH 4 ikaslearen koaderno

Arantza Intxausti. Cristóbal Gamon BHI



## HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA

### PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS

#### DBHko 4. mailarako materialak / Materiales para 4º de E.S.O.

PROIEKTUA/PROYECTO: Zer kontatuko didazu? ¿Qué me cuentas?

EGILEAK/AUTORAS: Arantza Intxausti y Blanca Valerio. Cristóbal Gamón BHI.

( Testu batzuk Elkareko “Ostadar” proiektutik hartu dira )

UNITATEAK/ UNIDADES:

- Zer kontatuko didazu?: eleberri bat irakurtzea eta idaztea.
- ¿Qué me cuentas?: recorrido por la narrativa española, que se plasmará en un eje cronológico y creación de un cuento breve.

#### **Aurkezpena**

Hainbat istorio kontatu da gure artean, eta eleberriak istorio horiek irakurleei helarazteko tresna bat izan dira. Eta zertarako idatzi dira? Irakurleak une gozo bat bizi izateko, dudarik gabe.

Ez omen dago eleberri txarrik, egile batentzat berak sortutako eleberriak mementoko bizipen, gertaera edo zirraren interpretazioak baitira. Baina zein dira gurean eleberri bidez kontatu diren istorio horiek? Batzuk irakurtzeko aukera izango duzue unitate honetan, euskal eleberrigintzaren sorreratik gaur arte, zer eta nola kontatu den ezagutuko duzuelarik.

Ziur zuei ere buruan dabilkizuela, bueltaka, kontatzea merezi duen istorioren bat. Horretarako ere parada izango duzue proiektu honetan; eleberri bat idazteko aukera.

Gazteleraz narrazioaren ezaugarriak eta elementuak ezagutzen eta sakontzen hasiko zarete eta ondoren euskaraz arinago landuko dituzue. Euskaraz berriz, lehendabizi irakurzaletasuna zertan datzan ikusiko duzue eta gero, narrazioaren elementuak landu ondoren, zuen ekoizpena pixkanaka sortuko duzue.

## Unitatearen ardatza

<b>MOTIBAZIO SAIOA - Gure historiaren protagonistak ezagutzen</b> <b>0 Jarduera:</b> Eta zuk handitan zer izan nahi duzu
<b>1 LAN-SEKUENTZIA – Irakurtzeko zaletasuna</b> <b>1 Jarduera:</b> a/ irakurri zertarako? b/ zerk eraman gaitzake liburu bat irakurtzera <b>2 Jarduera:</b> euskal prentsan literaturari edo idazteari egiten zaizkion aipamenak aurkitzen <b>3 Jarduera:</b> eleberria irakurtzeko aukera
<b>2 LAN-SEKUENTZIA - Zer da eleberria?</b> <b>4 Jarduera:</b> eleberria definitu <b>5 Jarduera:</b> eleberria idazteko dekalogo posible bat idaztea
<b>3 LAN-SEKUENTZIA - Euskal eleberrigintzaren sorrera: <i>Peru Abarka eta Garoa</i></b> <b>6 Jarduera :</b> euskal eleberrigintzaren sorrera aztertu
<b>4 LAN-SEKUENTZIA - Euskal eleberrigintza modernoaren hastapenak: <i>Leturiaren egunkari ezkutua</i></b> <b>7 Jarduera:</b> ohiturazko eleberriekiko haustura <b>8 Jarduera:</b> berrikuntza kontatzeko eran : <i>Egunero hasten delako</i>
<b>5 LAN-SEKUENTZIA – Idazte espedizioa planifikatzen</b> <b>9 Jarduera:</b> amaierak asmatzen a/ sormenezko imitazioa b/ aipuak abiapuntu c/ oroitzapen literarioak
<b>6 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua</b> <b>10 Jarduera:</b> argumentuaren bila <b>11 Jarduera:</b> pertsonaiak definitzen
<b>7 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua eta kontatzeko era</b> <b>12 Jarduera:</b> argumentua garatzen <b>13 Jarduera:</b> eleberriaren kontatzeko era erabakitzea
<b>8 LAN-SEKUENTZIA – Deskribapenaren funtzioa</b> <b>14 Jarduera:</b> pertsonaien deskribapenak aztertzen <b>15 Jarduera:</b> hainbat pertsonaiaren aurkezpenak aztertu

<b>16 Jarduera:</b> pertsonaiak identifikatu
<b>9 LAN-SEKUENTZIA – Eszenatokien deskribapena</b> <b>17 Jarduera:</b> a/ zenbait eszenatokien deskribapenak aztertu b/ zeuen eleberriaren eszenatokia deskribatu
<b>10 LAN-SEKUENTZIA – Kontakizunaren erritmoa</b> <b>18 Jarduera:</b> ereduak aztertzen <b>19 Jarduera:</b> barne-bakarriketaren ezaugarriak identifikatu <b>20 Jarduera:</b> zeuen eleberria berrikusten: denbora erreparatu <b>21 Jarduera:</b> pertsonaien elkarrizketak : pertsonaien hitzak eta puntuazio markak <b>22 Jarduera:</b> zeuen eleberriaren azken berrikusketa <b>23 Jarduera:</b> eleberriaren azala hautatu
<b>AUTOEBALUAZIOA</b>

Taldeka arituko zarete. Azter ezazue txantiloiko zutabeetan ageri diren datuak, jarraibide hauek kontuan harturik:

- Idatzi zutabe horietan zuen ustez zer falta den, garrantzitsua baldin bada.
- Kendu zuen iritziz garrantzirik ez duena.
- Sailkatu zutabe bakoitzeko datuak garrantziaren arabera.

Gogora ezazue taldekoen ordezkaria izendatu beharko duzuela, denok talde handian batera aritzen zaretenean, gainontzeko ikaskideei zuen taldekoen iritziak azaltzeko.

ZER IKASIKO DUGU?	NOLAKO JARDUERAK EGINGO DITUGU ?	NOLA EBALUATUKO DUGU LANA?
<ul style="list-style-type: none"><li>➤ Euskal eleberrigintzako oinarrizko erreferente diren obra zatien irakurketara eta analisira bideratutako elkarrizketetan modu eraginkorrean parte hartuz, obra horien esanahia elkarren artean eraikitzen, eta horrekin, euskal kultura-tradizioa hobeto ezagutzen.</li><li>➤ Euskal eleberrigintzako tradizionalaren eta modernoaren arteko oinarrizko aldeak bereizten, eta ezagutza hori eskema batean adierazten.</li><li>➤ Atseginerako irakurketa helburutzat hartuta, irizpide propioekin literatura-obra bat hautatzen, eta, osotasunean irakurri ondoren, bizi izan duzun esperientzia eta daukazu iritzia besteei justifikatuz adierazten.</li><li>➤ Ideien sormenerako eta haien garapenerako landutako prozedura aplikatuz, zeuen nobela planifikatzen eta, sormena eta zentzu estetikoa azalduz, haren lehen zirriborroa idazten.</li><li>➤ Landutako ereduak erreferentziatzen hartuta, aurretiko plan baten arabera eta baliabide adierazkor aproposak erabiliz, nobelako pertsonaiak eta ekintzen eszenatokiak deskribatzen, eta testu-sekuentzia horiek zeuen kontakizunean egoki txertatzen.</li><li>➤ Idatzitakoaren arabera eta landutako ereduak sormenez imitatuz eta eraldatuz, deskribapenak eta barne-bakarrizketak idazten, eta zeuen nobelako kontakizunaren erritmoa aldatzearen, baliabide horiek modu kontzientean, egoki eta eraginkortasunez erabiltzen.</li><li>➤ Ikasitakoa aplikatuz eta dituzuen arazoei irtenbide egokia bilatuz, zeuen novelaren berrikusketa eta hobekuntza-prozesuan ardura eta autonomia-maila onargarria azaltzen.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Testuak aztertu eta fitxak bete.</li><li>✓ Galdera zehatzak erantzun.</li><li>✓ Taldeka zenbait ideia eztabaidatu, ados jartzeko.</li><li>✓ Zenbait elkarrizketa entzun eta eztabaidatu.</li><li>✓ Eleberriak irakurri eta kritikak aztertu.</li><li>✓ Interneten informazioa jaso.</li><li>✓ Testuetako hutsuneak bete.</li></ul>	<p>PROZEDURAK</p> <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Autoebaluazioaren bidez.</li><li>➤ Ikaskideen ebaluazioaren bidez.</li><li>➤ Ahozko jardueren bidez.</li><li>➤ Aurkeztutako lantxo eta eskemen bidez.</li><li>➤ Azterketen bidez.</li><li>➤ Koadernoak zuzenduz.</li></ul> <p>JARRERAK</p> <ul style="list-style-type: none"><li>➤ Talde lanetan parte-hartze aktiboa.</li><li>➤ Talde lanetan kideak errespetatu.</li></ul>

## MOTIBAZIO SAIOA: Gure historiaren protagonistak ezagutzen

**0 Jarduera:** Irakur itzazue testu hauek eta saiatu hurrengo orrialdeko galderei erantzuten.

Hamaika aldiz kontatu izan diet lagunei, nola Alegiko hortxaxiete marimatxarda bat nintzenean, ikastolan ipuin bat idatzi eta ez dakit zein lehiaketatan sari bat eman zidaten. Sei urtek etorkizuna argi eta garbi ikusteko ematen duten ahalmenari esker, “y de mayor qué quieres ser” galdera originala egin zidan kazetariari “escritora” erantzun nion. Gizon hark sortu zidan bizi honetan gogoan dudan lehenengo frustrazioa, idazle izateko ikasketarik ezin zela egin argitu zidanean. Baina kazetaritza antzeko bide bat izan zitekeela esatean, ez zekien aurrean zeukan hura mandoa baino egoskorragoa bihurtuko zenik. Handik aurrera, kazetaritza ikastea beste helbururik ez bainuen izan. Edo hori uste dut.

Normalean gertatu ohi denaren kontra, helburua bete nuen, eta hartan ari nintzen bitartean, askotan gertatu ohi denez, zergatik hasi nintzen ahaztu zitzaidan. Zoritxarrez, sei urterekin hain garbi nituen ideiak nahastuz Joan zaizkit, eta gaur egun handia izaten naizenean zer egitea gustatuko litzaidakeen galdetuko balidate, lehendabizi behintzat, handia ez izatea, erantzungo nuke. Edo uste horretan nago.


Edo aldrebes kontu nezakeen, nola Iruñean kazetaritza ikasten ari nintzenean, eguneroko notiziak hain hotzak iruditzen zitzaizkidanez, gertukoak ipuin bilakatzen hasi nintzen... Baina hori, beste ipuin bat izango litzateke... ez al zaizu iruditzen?

Eta zer izan edo egin nahi dudan erabakitzen dudan bitartean, Goizean Behin hizketan aritzen naiz eta astean behin zerbait idazten dut... ezer baino lehen... zuri une atsegin bat pasarazteko asmoz.

Arantxa Iturbe, *Ezer baino lehen*, Elkar

Literaturan, alegia, gauzak, inguru-mundua oro har, pinoa egiten ari bagina bezala ikusten dira, hain oker ere. Eta zaila da, beraz, jarrera hain anti-natural eta osasun-kalte horretan gauden bitartean –luzaroan, maiz, asko-, burura pilatzen zaizkigun odol-oldeak odolbildu bihur daitezen ekiditea... Aldez aurretik inoiz ez da jakiten non eta nola eta noiz bukatuko den idazte-espeditio bakoitza, edo idazte-gudaldi bakoitza (metafora bidaiaria ala gerlaria hautatzea, zure esku).

Joxe Austin Arrieta, *Labur aroz*, Txalaparta



- ☐ Idatzi duzun zerbait aurkeztu al duzu inoiz lehiaketaren batean, edota gustatu al zaie gelakideei zuk idatzitako zerbait? Zuri gustatu al zaizu?
- ☐ Erraza al da zuretzat idaztea? Zer diote Arantxa Iturbek eta Joxe Austin Arrietak idazteari buruz? Erraza gertatzen al zaie?.

Ezer baino lehen, gure historiaren protagonistak ezagutu beharko genituzke, hau da, idazle euskaldunak, baina horretan hasi aurretik:

- Zure ustez, ba al du idazle batek beste pertsonengandik bereizten duen ezaugarririk?
- Idazleak nolakoak direla imajinatzen duzu? Hiri handietan ala herri txikietan bizi ote dira? Zein ote da egungo idazleen batez besteko adina? Emakumezkoak ala gizonezkoak ote dira gehien? Nola hasi ote ziren idazten? Zergatik? Zeri buruz idazten ote dute?
- Zer galdetuko zenieke?
- Beharbada, idazleren bat gertutik ezagutu duzu. Horrek inpresioa eman zizun?

Idazle bat naiz, karpeta asko ditut, ordenagailua ere bai, baina ez dakit non sailkatu gaur gertatu zaidana.

Joxe Austin Arrieta

## 1. LAN SEKUENTZIA: Irakurtzeko zaletasuna

Idazle guztiak irakurle sutsuak dira. Idaztearen esperientzia izan aurretik, irakurtzea izan dute zaletasun.

### 1. jarduera: a/ irakurri zertarako? EZTABAIDATU

a.- irakurmenaren gozamina sentitzeko, bizitzeko; irakurketa ezagutzarako eta komunikaziorako iturri ere badela ohartzeko: denboran nahiz espazioan, norberarengandik urruti nahiz gertu dauden beste errealitateekin, pertsonekin... harremanetan jartzeko.

b.- idazteko erreferenteak edukitzeko, oroimena aberasten joateko.

### b/ Zerk eraman gaitzake liburu bat irakurtzera?


- **Edukia** izan daiteke amu bat. Izan ere, liburu bat gogoz irakurtzeko nork bere zaletasunak jaso behar ditu, hau da, mementoko kuriositateak, mementoko galderen erantzunak, edo, besterik gabe, egunerokotasunetik aterako gaituzten gaiak edo gertakariak. Edukiaren berri jakiteko askotariko moduak daude. Horietako bat **aiPUAK** dira.



- **Irakur itzazu liburu hauen aipuak.**

Abenturazko nobela bat da Inesaren balada, XVIII.mendeko kortsario lapurtarren mundura garamatzana, pirata-eleberrien lilura guztiaz baina berezitasun batekin: neskato bat da bertako protagonista. Inesa Indazubikoak ihes egingo du gurasoen ostatutik, sortetxeari loturik iraun beste aukerarik ez baitzuen han. Pellot Kapitainaren bila joango da, harekin itsasoratzeke asmoz. Huraxe baitu bere eredu eta heroia, behin bakarrik ikusi duen arren, eta hark bezala ibili nahiko ditu itsasoak eta ezagutu munduak. Tartean, hala ere, hamaika ibilera eta katramila pasatu beharko ditu.

Irakurle gazteentzat ez ezik edozein literaturzalerentzat izango da liburu hau gustagarri bezain gogoangarri.




Estilo berri bat dakar Arantxa Iturbek: freskoa, bixia, lotsagabea. Bere ipuinak azkarrak dira, arinak, ironikoak; gizon-emakumeen arteko harremanen ikuspegi berezia eskeintzen dute, umoretsua eta aldi berean sakona, eta ahaztu ezina da bertan agertzen diren emakumezkoen antologia: gazte eta zaharrak, alai edo tristeak, kaskarin ala samurrak, baina beti maitagarriak. Ipuinak asmatzeko izugarritzko irudimena erakusten du Iturbek bere lehenengo liburu honetan, eta horrekin batera ahozko euskara bizia; ez ordea Joanesen baserriko iturritik hartua, baizik eta gaurkoa eta kalekoa. Izango du zerikusirik horretan egilearen irratilari ofizioak, kontakizun hauek irakurtzean sarritan irudituko baitzaizu belarrira hizketan ari zaizula norbait, istorio txiki eta gaxiak kontu-kontari.



Txemak galdu egin du bere betiko neska-laguna, Eider, auto-istripu batean. Hura ahaztu nahi eta ezinik dabilela, Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du Txemak, klabe sekretuz babesturiko disketean. Eiderren animarekin bat egiteko eta ondoren betiko ahazteko asmoz, bidaia hori bera berregitea pentsatu du Txemak, eta Irlanda mitiko horren bila abiatzen da, disketea poltsikoan, zer topatuko duen jakin gabe.

Oso erromantikoa da abiapuntua, baina kontuz, ezer ez baita lehen begiratuan dirudiena. Ustekabe ugari ditu Txemak zain, eta irakurleak irribarrez deskubrituko ditu bideko sorpresa horiek guztiak. Izan ere, itxura ximple eta sentimental baten azpian ezkutatu du Gabiriak bere gaiztakeria: hain da kokoloa Txema hori, hain da naif-a Eiderren egunkaria; maila desberdineko irakurketak uzten dizkigu egileak: berehalakoa, zuzen-zuzen eta erraza, edo sujerentziaren bidez erdi estalian doana bestela, sinbolismoz beteriko ipuin ederrak barne.

Gazte batzuen abenturen nobela duzu esku artean, gazte batek idatzia; maitasunari buruzko eleberria ere bai, mezu ironiko bezain anbigua duena; Irlandan zehar egindako bidaiaren kronika ere aurkituko duzu, turistarentzako amu guztiak bertan dituela: bai Connemarako ikuspegi miresgarriak, bai IRA bera; labur esanda, idazlan fresko, arin, atsegin eta mamitsua, egile ausart baten fruitu heldua.



- Aipu horietatik zein hurbildu da gehien zuen gustuetara?
- Edukiaren berri edukitzeko beste bide bat liburua irakurri duen lagunen batek hari buruz dioena ezagutzea da. Lagunen aipamenetatik jaso al duzu liburu interesgarriren baten berri? Zein da liburu hori?
  - **Arrakasta izan duten liburuak** zein izan diren ezagutzeak bultzatzen gaitzake liburu baten irakurketara. Hona zerrenda bat:

#### ZENBAIT LIBURU INTERESGARRI

- *Kandiskyren tradizioa*      *Galdu arte*      *Berandu da gelditzeko*
- *Mugetan*      *Inesaren balada*      *Eta ni zer?*
- *Barrikadak*      *Txakurraren alaba*      *Azukrea belazeetan*
- *Obabakoak*      *Behi euskaldun baten memoriak*

- **Azken argitalpenak** nahiz argitalpen horiei buruzko iritziak ezagutzeko bide bat literaturarekin zerikusia duten web-guneetara jotzea da.

- Webguneak:
  - . [www.elkarlanean.com](http://www.elkarlanean.com)
  - . [www.erein.com](http://www.erein.com)
  - . [www.txalaparta.com](http://www.txalaparta.com)
  - . [www.susa-literatura.com](http://www.susa-literatura.com)
  - . [www.armiarma.com/zubi/](http://www.armiarma.com/zubi/)

2. **jarduera:** Literaturak leku berezia du gaur egun **prentsan**. Irakurle askori liburuetako bidea erraztu die prentsak. Bertan, liburuen aipuez gainera, beste modu askotako aipamenak egiten zaizkio literaturari.

- Irakur itzazue adibide hauetan, euskal prentsan irakurtzera zaletzeko egiten diren ahaleginak.

**A/** lazko ikasturtean ikusi bezala, emanaldi askotan literatura eta musika besotik lotuta doaz. Hona hemen adibide moduan Gari, Hertzainak taldeko abeslariak, eta Bernardo Atxagak eginiko emanaldiaren iragarkia Geu aldizkarian

A luis karlos garcia - GASTEIZ

Atxaga eta Gari, elkar harturik

**'Aitormena' saioa emango dute etzi, Gasteizen, Nando de la Casa eta Jose Goikoetxearekin batera**

Bernardo Atxaga idazlea eta Iñaki Garitaonaindia Gari musikaria elkarrekin ariko dira etzi Gasteizko Principal antzokian, Aitormena izenburuko ikuskaria oholtzara eramateko Jose Goikoetxea errezitalari eta Nando de la Casa musikariarekin batera. Gauekoak gazteentzako aisialdi-programak eta Geu-k elkarlanean eratutako eskaintza izango da.

Atxagaren testu berriak, edo inoiz argitaratuta ere, ez oso ezagunak gozatzeko parada izango da. Era berean, Garik eta De la Casak propio atondutako musika joko dute, eta baita garai batean Garik Hertzainak taldean abestutako Aitormena edo gerora bakarka kantatutako Egun finlandiar bat edo Amets piezak ere; abeslariak Bizitzak ez du etsitzen kantu berria emango du. Oro har, testuak eta musikak euren nortasun propioa izango dute, nork berea, «bereizita». Izan ere, Atxagaren ustez nekez lor daiteke hitzak eta musika zeharo uztartzea: «Esan ohi da kitarrarekin lagundu egiten zaiola testuren bati, baina normalean hori ezin da izan». Nolabait, kantuetan uztartuko dira, berez, musika eta hitzak. Saioa Gasteizen baino ez da eskainiko oraingoz, eta, oraindik hitz egin, egin ez badute ere, Atxagak beste toki batzuetan ere emateko «gertu» dagoela esan zuen.

**B/** Egunkarietan hainbat zutabe idazten dira literatura eta musika uztartzearen aitzakiarekin, musikazaleak literaturara erakartzeko asmoz edo literaturzaleak musikara erakartzeko asmoz. *Xirika* gazte aldizkarian, astero abesti bihurtutako testuen inguruan idazten dute gazteek.

- ELPAIS.com
- Edición impresa
- País Vasco

## ERREPORTAIA

### Atxagaren hitza dantza bihurtuta

Belar Gorria taldeko Laida Azkona dantzariak 'Hasiera. El Principio de la incertidumbre' ikuskizuna sortu du - Atxaga idazlearen testuak oinarri dituelarik

**M. RUBIO** - Bilbo - 04/01/2010

**C/** Egunkari zein aldizkarietan ohikoak dira idazleei egiten zaizkien elkarriketak. Hona Andu Lertxundi idazleak esaten duena ibilbide literarioen hastapenen inguruan.



“Niretzat erronkarik inportanteena, pentsatzen ditugun kontu zahar batzuk irakurleari modu sinesgarrian ematea eta hizkera bat jasotzea da”

The Balde, 17. Zenb. 2004

- ✚ Bila itzazue euskal prentsan literaturari edo idazteari egiten zaizkion aipamenak.
- ✚ Ekarri gelara prentsako zati horiek eta taldean hitz egin topatutakoaren inguruan.
- ✚ Sailka itzazue prentsan topatutako adibideak zer diren esanez: liburuen kritikak, liburuen iragarkiak, egileei elkarrizketak , literatura-emanaldien agenda oharrak...

3. **jarduera:** Dagoeneko liburu bat aukeratzeko hainbat erreferentzia duzu.

- Zein da aukeratu duzun eleberria?
- Zergatik hautatu duzu hori eta ez beste bat? Zerk erakarri zaitu?

## 2 .LAN-SEKUENTZIA: ZER DA ELEBERRIA?

Irudimena da orimenean gordetako ukitu pertsonalarekin jantziz, birsortzeko gaitasuna.

Kaletik goazela ikusten ditugun gauza deigarriak, alboko bikoteari entzundako hitzak, ametsetan bizi izandakoa, irakurritakoa... oroimenean gordetzen joaten gara gu ere. Baina gutxitan berreskuratzen ditugu funtzio sortzaile baterako. Nola egin daiteke hori? Galde dezake norbaitek. Oroimenean gordetako bizipenak eta ideiak, koadernotxo batean idaztea izan daiteke horretarako bidea; gero, zerbait idazteko unean, horra jo, ideiak besotik heldu eta haiekin istorio berriak sor daitezke. Oroimeneko gertaera bat besotik helduz eta birsortzean, aldaketak egiten dizkiogu gertakariari; beste mundu bat sortzen dugu. Horretan datza irudimena.

- ✚ Egin ezazue zeuen oroimenera bidaiatxo bat, eta ekarri paperera bertan gordetako gertakari, sentrazio, ideia, pertsonaia edo leku bitxiak. Gorde koaderno batean, gero idatziko duzuen nobelarako baliagarriak izango zaizkizuen zertzeladak izan baitaitezke.
- ✚ Horrela sortutako testuak dira jarraian dituzuenak, hau da, gertakari erreal bat aitzakiatzat hartuta idatzitakoak. Irakur itzazue.

AZAROA	
	Osteguna 18
-----20:00 etan-----	-----Plateruena-----
-----	-----kafe Antzokiaren inagurazioa-----
	Ostirala 19
-----	-----
	Larunbata 20

PLATERUENA
Bilbotik Donostiarako ibilbidean estazio bat du hemendik aurrera euskal kulturak eta euskalgintzak. Eten hori Durango da, eta ez naiz liburu eta disko azokaz ari. Ez naiz datorren Ibilaldiaren jaiari propagandarik egiten ari. Durangok herri karlista izatearen fama gogoan izango dute, oraindik ere, gure guraso eta aiton-amonek. Bigarren guda karlistan ere Bergara eta Lizarrarekin batera Durango zen herri garrantzitsuenetakoa. Baina, beste garai bat aipatzearren, XVIII.mende amaieran, jatorri erdalduneko bi anaia euskaltzale omen zebiltzan handik, "plateruak" ziren lanbidez. Historiari erreferentzia eginez, gune euskaldun berri batek izen hori izango du hemendik aurrera Durangon, Plateruena Kafe Antzokiak. Gure iragana zer zen eta ez zen onartzeko ahalegin bat baino ez da atzera begiratzea. Askotan ondasun bat izaten da iraganetik gauzak jasotzea. Euskarari eremuak irabazi behar dizkiogu, euskarak esparru erreferentzialak behar ditu eta adibide moduan gero eta gehiago ugaritzen ari diren Kafe Antzokiak daude. Haur, gazte, ez hain gazte eta helduei zabaldutako eremu euskaldunak dira horiek. Herriak eskatutako eta herriari eskainitako joan-etorri horretan, lanik onena egingo delakoan, biziraupenik luzeena opa diot Plateruena Kafe Antzokiari. Etorriko diren belaunaldi berriek ere ondasun kultural eta euskaltzale bat izango dute, seguru.
Berria egunkarian argitaratua, 2004ko azaroaren 20an

## 4. jarduera : eleberria definitzen

Zer da eleberria? Eta zer ez? Gogoratu guzti hau gaztelaniaz landu duzuela.

Erantzunak erraza dirudi hasieran, idazki batzuen aurrean jartzen garenean zein diren nobelen atalak eta zein ez adierazteko orduan nahiko ados izaten garelako. Baina nola definitu zer den nobela? Liburu bat? Poesia-bildumek ere liburuak osatzen dituzte. Pertsonaia asko dituen liburua? Telefonoen listinek edo entziklopediek ere pertsonaia ugari, eta maiz interesgarriak dituzte, baina ez zaizkigu irakurgai aproposak iruditzen arratsalde euritsu baterako. Ekintza asko dituen liburua al da eleberria? Sukaldaritzari buruzko liburuek edo Nola aberats bihurtu gisakoek ere ekintza asko dituzte, baina badakigu ez direla

eleberriak. Eleberria kontaketa bat al da? Egunero kontatzen ditugu gauzak, lagunekin berrikerian, albiste bat idaztean, istripu baten berri ematean... Eta hala ere, intuizioz bada ere, badakigu zer den eleberri bat.

- ✚ Bilatu zer dioten nobela kontzeptuari buruz hainbat idazlek. Zer da eleberria zuretzat?

Nobela bakoitza ihes joan zaigun denbora berreskuratu nahi duen ontzia da.

Joan Mari Irigoien

- ✚ Zuk zeuk nola definituko zenuke eleberria?
- ✚ Irakur ezazue Bernardo Atxagak, ipuin bat aitzakia hartuta, zer eta nola idatzi behar den azaltzen duen testua. (irakasleak banatuko dizue)

Istoriok diotenaren arabera, beharrak eraginda, bizitza errealean bezala, ia azken minutuan idatzi du Atxagak *bost minutuan* idatzi behar zuen ipuina. Dena dela, konturatuko zinen, denbora hori fikzio hutsa dela; izan ere, ezinezkoa da horrelako ipuin bat *bost minututan* idaztea. Idazlearen bat-batekotasunaren atzean lanketa handia nabari da. Testu idatzia ez da ahozko bat-bateko jardunaren moduan ematen, aitzitik, lanketa sakona eskatzen du.

##### 5. jarduera: eleberria idazteko dekalogo posible bat

- Idazten irakastea helburu duten testuetan ohikoak izaten dira ondo idazteko dekalogoak; halaber, ohikoak dira idazleen aholkuak eta gomendioak. Bernardo Atxagak antzeko zerbait egiten du irakurri duzuen ipuinean. Zerrenda itzazu ipuin horretan Atxagak ipuin bat ondo idazteko aipatzen dituen pausoak.
- Berak aipatzen dituen urratsetatik, zein da egiten duzuna edota egitea gustatuko litzaizukeena?
- Pentsa ezazu une batez zeure idazte esperientzian zer urrats eman izan dituzun testu bat idazteko, eta idatz ezazu ipuin bat.

Gauza bat da egiten duguna, eta bestea egin beharko genukeena. Egin ezazu zeure idazte-prozesuaren hausnarketa. Horretarako balia zaitetzke ondoko dekalogoaz:



#### DEKALOGO POSIBLE BAT

- Ez izan presarik, hartu behar den denbora
- Erabil ezazu nahi duzun euskarria (papera, ordenagailua...)
- Egin nahi adina borradore
- Pentsatu zure hartzailearengan
- Utz itzazu arau gramatikalak azkenerako
- Eman iezaiozu norabide bat istorioari
- Beha iezaiezu paragrafoei
- Beha iezaiozu idatzitakoari esaldiz esaldi
- Pentsatu irakurleak erraz irakurri behar duela zuk sortutakoa; beraz, kendu sobera ikusten duzuna.
- Utzi atsedena hartzen idatzitakoari, eta, handik egun batzuetara, heldu berriro testuari.

Daniel Cassany, *la cocina de la escritura*, Anagrama

🗨️ Idatz ezazu dekalogoko esaldi bakoitzak iradokitzen dizuna

### 3. LAN-SEKUENTZIA: ELEBERRIGINTZAREN SORRERA:



Poesia idatzia berantiarra bada gurean, eleberrigintza are eta fenomeno berantiarra da. Izan ere, XIX.mendearen amaiera arte, apenas idatzi zen euskaraz eleberri dei dezakegun idazlanik, eta XX.mendearen hasieran idatzi zirenek ere, aurreko mendean Europako beste zenbait herrialdetan idatzitako nobelen moldeei jarraitu zieten.

XIX.mendean nobelarenzko hurbiltze-pauso izan zen hainbat lan agertu zen: lehenengo nobelatzat hartua izan den **Peru Abarka J.A. Moglek** idatzi zuen 1802an, eta 1881a arte ez zen argitaratu. Baina obra horren nobelatasuna zaila da defendatzen, istorioa elkarrizketa-sorta bat baita.

- ✚ Irakur ezazue irakasleak emandako liburuaren pasarte txiki bat.
- ✚ **PERU ABARKA** Liburu honek bitzita tradizionalaren ikuspegi zehatza ematen du: euskal arimarik, bizimodurik eta euskararik garbiena eta onena baserrietan dago eta ez kalean. Beraz, liburu hau, desagertzeaz zegoen gizarte zaharraren defenza amorratua da.
- ✚ Egin ezazue testuaren irakurketa adierazkorra

Baina **lehenengo erabateko euskal eleberria** XIX.mendearen amaieran argitaratu zen: Txomin Agirreren *Auñamendiko lorea*, hain zuzen ere, *Euskalzale* aldizkariaren 1897.urteko literatura-saria irabazi zuena, eta aldizkari horretan bertan hurrengo urtean atalka argitaratu zena. Eleberri horrek Euskal Herria kristautzeko lanak eta borrokak kontatzen ditu, baina ez zuen interes berezirik sortu argitaratu zen unean. Aurrerantzean, gai historikoak alde batera utzi eta bere garaiko giro, kontu eta jendeei helduko zien Agirrek. Dena dela, Txomin Agirreren lehenengo eleberri hori, eta ondoren idatzi zituenak, *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912), hala nola, haren garaikide diren beste idazleen lanak, Jose Manuel Etxeita-



ren *Josetxo* (1909) kasu, eta ondorengoenak 1957 arte, **ohiturazko eleberriak** dira gehienak, XIX.mendean Europan erruz landutako eleberri mota. **Euskal Herriko ohiturazko eleberriak** antzinako baserri-giroan eta itsas portuan kokatzen dira, eta oinarriko hiru elementuren inguruan ardatzen dira: fedea, aberria eta euskaltzaletasuna. Ohiturazko eleberrietan deskribaturiko gizartean eguneroko bizitzatik ateratako gatazkak eta borroka txikiak ageri dira. Gehienetan gatazka horiek maitemintzearen gainekoak dira, eta amaieran duten ezkutuko helburua ikasgai bat ematea da.

## GAROA

Ura zan gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oñak, zindoak bere bular-auspoak.

Irurogeta amabi aldiz ikusi zuan, Aloña mendiko ariztietan, ostro berdea berriz jaiotzen; baña etzion eramango emeretz urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burni astuna jaurtitzen, ez mendietan gora edo ibarretan zear laisterka.

Kaiko andi bat esne goizean jan, azpantarrez izterrak estaldu ta makilla bat eskuan artu ezker, prest zegoan egun osoan, zein ariñago bezela, beorren atzetik ibiltzeko edo, neke askorik gabe, ardi galdu gaixoaren billa gau guztia igarotzeko.

Argiak ziran Joanesen begi gozoak. Oitua zegoan Joanes zerura ta lurrera, gabaz ta egunez, arreta andiz begiratzen; ta iñok baño lenago ikusiko zuan, goi aldetik, odei tarteko arranoaren ibillera apaña edo ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarraren kiñua, ta lur aldean, lokatz bigunetako abere oñatza, bide ondolik joan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi-oi zapala, arkaitz zuloetako egazti arraparien kabia, ta an bebeian agiri zan urlia erriko orduari zar ta illun samarra.

Ernaiak ziran Joanesen belarriak. Oso egiña zegoan Joanes mendioiarzun guztietara. Milla aldiz bai entzun zituan, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orrua, ekaitz aizearen durundia, artzaiaren deadar luzea, egurgillearen aizkorakada neurtua; basaurdearen arnasotsa, otsoaren alarua, azeriaren zaunka, beorren irritzia, mozoloaren oiua, basauntz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulun-duluna, ardien bee negartia, suge zarraren txistua, belien garraxi latza, sosoatren txortxorra, txori kantari askoten txiotxo alaia, errekastoen poll-polla, zugatz ostroen pir-pir biguna, eltxo gogaikarrien zunburruntxo... itzgutxitan esateko, izakiak berez dituan ta mendi basoetan diran abere, pizti ta sortutako gauza guztien amaigabeko soñu txiki ta andi, ixil ta bizi, garratz ta gozo, mingarri ta eztitsu, pozkor ta ikaragarritzko danak.

GAROA

- Irakurri duzuen pasarteak zein euskalkitan dago idatzia?
  - Gipuzkeraz Bizkaieraz
  - Lapurteraz Nafarreraz
- Zerrenda itzazu pasarteetan lekuak eta pertsonak deskribatzeko erabiltzen dituen adjetiboak.
- Zerrenda itzazu pasarteetan agertzen diren onomatopeiak

#### 4. LAN-SEKUENTZIA: EUSKAL ELEBERRIGINTZA MODERNOAREN HASTAPENAK: *Leturiaren egunkari ezkutua*

##### 7. jarduera : ohiturazko eleberriekiko haustura

Irakur ezazue Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren ondorengo pasarte hauek eta haren ezaugarri nagusiak. Ondoren, taldean jarriz, erantzun galderari.



#### LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA

Ohiturazko eleberriekiko haustura ekarri zuen eleberria

- Protagonistak ez du zerikusirik baserri munduarekin eta, batez ere, barne-sentimenduak eta ezinegonak islatzen dira eleberrian.
- Aurreko garaietako protagonistak eredugarriak eta perfektuak ziren; orain aldiz, heroi problematiko bat ageri da eleberrian, arazoak dituena.
- Leturiaren mundua zailtasunez beteta dago; haiei aurre egin beharrik sortzen dizkion gogoetak eta bizitzan hautatu beharrik sortzen duen larridura ageri dira.
- Lau zati ditu liburuak, urtaro bakoitzari dagozkionak: udaberria maitasunari eskainia da; uda, heldutasunari; udazkena, etsipenari; eta neguko zatian bide bila dabil, ilunpetan.

A.-

( ... ) Oraintxe ikusi dut ispiluan neure burua, eta hotzikara batek inarrosi nau: eroen begiak ditut!!! Ez begiak bakarrik, neure itxura osoa baizik. Betazpi ikaragarriak ditut, eta bi txinpart ematen dute nire begininiek. Leher egina nago.

( ... )

Egia esan, ez da hau harritzekoa: Bart ere beste askotan bezala, betiko istilua izan genuen Miren'ek eta biok. Ezin dut nik neure nazka gainditu; eta egun biz behin, zaputz eta hotz nagoela entzun behar.

Bizpahiru esakuntz erdiragarri esan ondoren, isildu egin zen Miren, eta ez zuen txintik berriz atera. Geroenean, ordea, nik loak hartuta nengoelakoan, nigar isila hasi zuen, eta tankera horretan, denbora luzea egon zen malko-jario, oso-oso isilik. ( ... )

Horretaz gainera goganbeharrez beterik dago Miren. Beste emakume bat dagoela uste du, noski. Herenegun, ez-ohiko ordu batez etxera nintzen, eta neure mahaian harrapatu nuen Miren, kajoiak ideki nahian nonbait. Ez nion ezer esan. «Zerbait» idazten dudala nabaitu bide du, eta bere etsaia balitz bezala bilatzen ari da. Ez du ezer aurkituko. Bai zeral Egunkaria irakur badeza, egin duke nereak.

B.-

Eta, guztira, bizitza al da hau? Miren zalantzan, nitaz fiatzen ez dela, beti urduri; ni, berriz, gogait, erotzeaz, neure buruarekin borrokan. ( ... )

Ezin sinets. Gaurko ezkonberriak bezalaxe hasi nintzen ni ere: esperantzaz beterik, haiek bezala irribarrez, haiek bezala Zorion Nagusia eskuan nuen uste irmoan.

Haren ibilera eta keinuak aztertu ditut, eta arinegi iruditu zaizkit. Biziak alegia, baina oso urduri eta artega bezala. Nigan ez dago horrelakorik: patxadan mugitzen naiz, eta ez bide naiz (dirudienez ez naiz) lehenagokoa bera. Hitz batera bilduz gorabehera: haiek gazte, ni zahar.

Ikusita dago: lilura hiltzen du aukeratzeak. Eta lilurarik gabe, gaztetasunik ez. Zergatik aukeratu nuen, bada, gazterik irauan banezakeen? Honatx nire okerra! Aukeratzeak egin nau zahar. Frakasatu egiten derrigorrez aukeratu duenak.

Bidez (arrazoiz) esan ohi du Jon nire adiskideak: Maitemindurik ez baina hipnotizaturik daude.

Eta zer gertatuko ote zaie gizajo horiei berriz esnatzean? Neuri gertaturikoa, noski.

Ai, mundu eroa! Besteren buruan ikasterik ez.

Alaka<sub>(keXu)</sub> hau berau alferrik da.

**Zein da pasarte bakoitzean agertzen den kezka nagusia? aukeratu erantzuna.**

a/ Denboraren joanak sortzen duen atsekabea.

b / Nork bere burua oso itsusi ikustea.

e/ Norberaren ezinegonak besteengan duen eragina: neska lagunarengan, adibidez.

d/ Ezkontzekotan dagoen mutilaren zalantzak.

**Zenbatgarren pertsonan daude idatzita testuak?**

## Zer ematen dio testuari horrela idatzita egoteak?

Sinesgarritasuna

Munduaren ezagutza

Objektibotasuna

## Kontatzeko eran berikuntza ekarri zuen eleberria

### 8. jarduera: berrikuntza kontatzeko eran: *Egunero hasten delako*

#### EGUNERO HASTEN DELAKO

- Idazlea
- Aurki itzazue kontatzeko eran eleberri honek ekarri zituen berrikuntzak.

**-Bi pasarte ezberdin banatuko dizue irakasleak. Irakurri ondoren erantzun pasarte bakoitzean agertzen diren galderak**



#### 1 pasartea:

-Berrikuntza ekarri zuen gaia izan zen abortuarena: zergatik uste duzue aukeratu zuela idazleak?

-Zenbat ahots daude pasartean? Norenak?

-Eleberriaren ezaugarrietako bat bakarrizketa da. Lehenengo pasartean azaltzen al da horrelakorik? Non?

#### 2 pasartea

-Aurrez esandako eleberriaren ezaugarriak kontuan hartuta, zer haustura adierazle aurki daitezke pasarte honetan? Identifikatu itzazu batzuk

## 5 LAN-SEKUENTZIA – Idazte espedizioa planifikatzen

. Eleberri bat idazteak ere zure espedizioa aurrez **planifikatzea** eta ekipaia baliabide egokiz hornitzea eskatzen du: zer kontatu nahi duzun, nori kontatu nahi diozun, non gertatuko den istorioa, nori gertatuko zaion, nork kontatuko duen, nola kontatuko duen, nola amaituko den. .. Elementu horiek guztiak ahalik eta hobekien definitzeak berebiziko garrantzia du, antolaketa horrek markatuko baitu, hein handi batean, zure idazte-espedizioaren arrakasta.

## 9. Jarduera:

### Amaierak asmatzen

Eleberri bat idazten hasterakoan, koadernoko orrialde zuriek itsaso zabal baten antzeko espazioa eratzen dute. Orrietan zehar hamaika abentura zirrargarri gerta daiteke, pirataz betetako lehengo itsasoetan bezala. Izan ere, zure koadernoko itsaso zurian milaka pertsonaia irudika ditzakezu eta zure nahiak, haizeak belaontziak bezala, ekintza batera edo bestera eraman ditzake, zuk nahi duzun amaieraraino.

Baina zer nahi duzu kontatu? Zer nahi diezu kontatu zure lagunei, gelakideei, edo zeure buruari? Galdera horri erantzuna emanez gero, lanaren erdia egina izango zenuke, ZER nahi hori **argumentuaren hazia** izango bailitzateke, ureztatuz eta behar dituen ongarriz elikatuz, istorio bilakatuko dena. Jakin badakigu mota askotako haziak daudela, eta horien artean nor bere gustukoa hautatu behar duela. Baina non topa ditzakegu hazi horiek? Ez dira inon saltzen, eta, nonbait egotekotan, geure irudimeneko zokoren batean egongo dira, lozorroan. Beraz, ekin diezaiozun miaketa lanari, lozorroan dauzkagun oinarrizko ideia horiek esnatzeari. Horretarako tresna izan daitezke jarraian proposatzen dizkizugun **sormenerako bitartekoak**.

### Amaierak asmatzea

- Nolako amaiera emango zenieke egoera hauetako bakoitzari? Bete itzazu hutsuneak.

HASIERAKO EGOERA	ARAZOA	BUKAERA
Neska bat plazako aulki berean esertzen da arratsaldero azken bolada honetan.	Baina ez du inork ezagutzen	

HASIERAKO EGOERA	ARAZOA	BUKAERA
Goizeko zazpiak dira. Ikastolara joateko prestatzen hasteko ordua	Komuneko ispiluan islatzen da nire aurpegia eta ez dut neure burua ezagutzen	

HASIERAKO EGOERA	ARAZOA	BUKAERA
Duela hamar urte jakin nuen nire aita ...	Harrigarriena zera izan zen ...	

HASIERAKO EGOERA	ARAZOA	BUKAERA
Udazkeneko egun batean jakin nuen zer den tristezia ...	Handik aste batera, izugarritzko ustekabea jaso nuen ...	

- Irakurri elkarri sortutako argumentu-haziak. Horien guztien artean, ba al dago zerbait esaten dizunik edo gustuko duzunik? Horrela bada, hauta eta gorde ezazu aparteko leku batean, prozesuan zehar sortutakohaziak gordetzeko erabiliko duzun kutxa horretan.

Oraindik hasierako orrietan bazaude ere, zure ustetan, nola amaituko da irakurtzen ari zaren nobela? Formula itzazu hipotesiak. Irakurtzen amaitzen duzunean ikusiko duzu bete-betean jo duzun ala ez.

- Asmatu duzun amaiera horrek iradokitzen al dizu zure istoriorako argumentu baten hazirik?

### ✚ sormenezko imitazioa

Istoria bera modu askotan konta daiteke, eta argumentu ezagunak eraldatzea izan da betidanik sormenerako teknikarik indartsuenetakoa eta idazleek gehien erabili dutena. Ia idazle guztiak besteek idatzitakoa imitatuz hasi dira idazten. Zuk ere gauza bera egin dezazun proposatzen dizugu oraingoan.

- Gogora ezazu gustuz irakurri duzun nobelaren bat. Jatorrizko istorioan jarraian datozen galderek bideratutako aldaketak txertatuz, nobela hori sormenez imitatzea lor dezakezu, eta zure nobelaren argumentuaren hazia topatzea; eta hori ez da kopiatzea.
- Zer kontatzen du? Idatz ezazu hitz gutxitan.
- Nork kontatzen du istorioa, narratzaile batek ala protagonistak berak?
- Nola geratuko litzateke istorio hori narratzailearen ordezkari protagonistak berak kontatuko balu, edota alderantziz? Hau da, istorioa beste ikuspuntu batetik kontatuko bazenu?
- Eta espazioa edota denbora aldatuko bazenu?
- Eta istorioan beste pertsonaiaren bat txertatuko bazenu?



**Modu horretan, aurkitu al duzu kutxan gordetzea merezi duen hazirik?**


### ✚ aipuak abiapuntu

- Idazle ezagunek idatzitako eleberrien inguruan hainbat aipu irakur daitezke egunkarrietan, liburuen atzeko azalean, web guneetan... Hona adibide batzuk. Liburu hauek irakurri ez badituzu ere, aipuak dioenean oinarrituz eta bertan eskatutako eraldaketak eginez aurki dezakezu inspirazio iturria. Proba ezazu.

- Zer gertatuko litzateke istorioa Usoak, Larraitzen ahizpak, kontatuko balu?
- Hori imajinatuz, saia zaitez zure nobelarako oinarrizko ideiaren bat irudikatzen.

**Hamasei urteko neska bat da Larraitz: bizia, azkarra, sentibera, jatorra .. baina ez da polita, eta horrek min handia ematen dio. Alferrik esango diote "barnea" dela garrantzitsuen, gero inguruko mutil guztiak bere ahizpa Usoaren atzetik baldin badabilta.**

**Fernando Morillo,  
*Eto ni zer?*, Elkar**



Bilbok behar zuen nobela berri bat, Somera eta Ronda kaleetan barrena ibiliko dena. Atxurin, Erriberan, San Frantziskon. .. Halaxe dabil Mikel, Zuria Beltz musika taldeko baxu-jolea: ez lanik ez dirurik; Dionisioren etxean bizi da, honen lepotik. Eta ahal denean, parranda eta rock and rolla.

**Unai Iturriaga,  
*Berandu da gelditzeko*, Susa**



- Demagun Mikel, Bilbon bizi ordez, herri txiki batean bizi dela eta istorioa zu jaio baino askoz ere lehenagoko garaietan kokatzen dela.

- Aldaketa horiek iradokitzen al dizute ideia interesgarririk?

Bizitzen ikastea ez da samurra inorentzat; ez dago inon argibiderik, ez erreklamazio-orririk. Eleberri honetako protagonistak -18 urteko lau neska eta beste lau mutil- gogor eta tematsu ahaleginduko dira, lagunarteko solasean nahiz parrandan, bizitzaren eskola horretako ikasgaiak bereganatzen: jakinminaren irrika, sexu-jolasen saltsak, poz neurgaitzak eta desilusiari latzenak.

**Fernando Morilla,  
*Ortzadarra sutan*, Elkar**



- Imajina ezazu bizitzaren eskolako ikasgai batzuk bereganatu dituztela dagoeneko aipuan izendatzen diren pertsonaiek, guraso baitira une honetan. Halako batean, elkartu dira eta badute zer gogoratu, zeri barre egin, zer faltan bota ...

- Egoera berri horrek ematen al dizu **Zerbaitetarako pistarik?**

### **Oroitzapen literarioak**

Oroitzapenak, bai norberak bizitakoarenak, bai eta irakurritako edota entzundakoarenak ere, fikziozko idazketaren oinarrizko elikagai dira.

*Oroitzapen literarioa* esatean, ez gara biografiaz (norberarena edota beste batena) ari. Aitzitik, fikziozko pertsonaiek eta asmatutako gertaerak baditu ere, idazleak, asmo autobiografikorik gabe, bere oroitzapeneko sentsazioak eta bizipenak sartzen dituen testu idatziaz ari gara. Asmatutako istorioa da kontatzen duena, baina bizipen errealean sostengatzen diren elementu autobiografikoak ditu.

Gogora ezazu zure bizitzako une jakin batean bizi izan duzun sentsazio bat: poza, tristura, etsipena, beldurra, bakardadea, gosea, esperantza, harridura... eta

sentsazio hori eragin zizun gertaera, pertsonaia, egoera... Asma ezazu argumentu baten hazia, sentsazio horren eragileak eta xehetasunak eraldatuz, asmatuz... baina izan zaitez leial sentimenduarekiko.

## 6 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua

### 10. jarduera: argumentuaren bila

- Aurreko jardueran sortatutako hazietatik, hauta ezazu gustukoena, zure nobelaren oinarrizko ideia izateko interesgarria iruditzen zaizuna.
- Hautatu ondoren, gara ezazu ideia hori nobelaren **argumentu** bilakatzeraino. Horretarako, gogora ezazu zer den eta nola idazten den argumentu bat.

## ARGUMENTUA

**Argumentuak** istorioaren eduki orokorra laburtzen du hitz gutxitan: istorioaren haria islatzen du. Ondo idazteko, bere egitura eratzen duten oinarrizko lau zatietako bakoitzean kontatu nahi duguna hartu behar dugu kontuan. Hau da, hitz gutxitan, zera azaldu behar dugu:

- hasierako egoera,
- egoera hori aldaraziko duen arazoa,
- arazo horren eraginez burutuko diren ekintza nagusiak eta
- istorioaren amaiera.

Eleberri on batek oinarrizko bi elementu behar ditu: argumentu interesgarria eta ondo definitutako pertsonaiak.

### 11. jarduera: pertsonaiak definitzen

Dagoeneko baduzu argumentua: beraz, pertsonaia nagusiak karakterizatzeari ekingo diogu.

- Argumentua kontuan hartuta, osa itzazu **pertsonaia nagusien fitxak**. Horretarako, izan itzazu kontuan jarraian adierazten diren alderdiak:

- Sexua eta adina
- Ezaugarri fisikoak (nabarnenenak, istorioan eragin dezaketenak)
- Izaera
- Ohiturak, gustuak, beldurrak, ametsak, zaletasunak, bertuteak, gabeziak, desioak ...
- Izena. Ezin zaio edozein izen jarri pertsonaiari. Zerikusia du horretan istorioa kokatzen den garaia eta lekuak. Sinesgarritasunaren mesedean, bi elementu horiekiko egokia behar du izan.



Pertsonaia nagusien ezaugarriak definituta dituzula, gerta liteke pertsonaia horiek zuk hasiera batean uste baino indar handiagoa edukitzea eta, ondorioz, argumentua idaztean aurreikusi ez dituzun hainbat egoera iradokitzea, edota amaiera bera ere bestelakoa izan dadin bultzatzea.

- Fitxan jarritakoa kontuan hartuta, aldaketarik egin nahi al diozu aurrez idatzi duzun argumentuari?
- Argumentuak interesgarria eta irakurlearen interesa pizteko modukoa izan behar du. Lortu al duzu efektu hori? Hori jakiteko modurik egokiena zure kideen iritzia jasotzea da. Horretarako:

a/ Tadean bilduta, parteka itzazue argumentuak

b/ Irakur ezazu ahots ozenean baloratzea egokitu zaizun argumentua eta, beharrezkoa irudituz gero, proposaiezazkiozu egileari egokiak izan daitezkeen aldaketak.

- Taldeko hausnarketaren emaitzak kontuan hartuta, berridatz ezazu zeure nobelaren argumentua.


## 7 LAN-SEKUENTZIA – Argumentua eta kontatzeko era

(Gogoratu gazteleraz narrazioaren elementu guztiak landuta dituzuela, hemen aipatu baino ez dugu egingo)


### 12. jarduera: argumentua garatzen

Argumentua idaztean, narrazioaren egituraren baitako oinarritzko lau zatiak izan dituzue kontuan. Zati horiei erreparatuz hasiko zarete argumentua garatzen, nobelaren kapituluak zirriborratzen. Zeregin horretarako askotariko aukerak badaude ere, hona hemen jarrai dezakezuen prozesuaren adibide bat.


A/ Hasteko, hasierako egoera eta arazoa kapitulu berean txerta ditzakezue.



B/ kapitulu berriak sortzeko aukerarik errazena ekintzek ematen dutenez, zati hori garatuko duzue hainbat kapitulu eratuz. Ikus adibidea:




C/ kapitulu bakoitzak zerbait berria gehitzen dio istorioari: pertsonaiak, egoerak, oroitzapenak... Hortaz, defini ezazue kapitulu bakoitzean, zer, non, zergatik, nola... Eta aurreikusi ondorioak; izan ere, horietan egon baitaiteke kapitulu bat hurrengoarekin lotzeko pista.



D/ Nork kontaktuko du istorioa: zuk asmatutako narratzaile batek? Pertsonaia batek? Ala bien konbinaketa egin nahi duzue? Posible da kapitulu batzuetan kontaketa istoriotik kanpo dagoen narratzailearen esku uztea, eta, beste batzuetan, zeregin hori pertsonaia bati ematea.

E/ Izan kontuan sortzen duzuen edozein kapitulu berrik eragina duela istorioaren harian; beraz, zaindu euren arteko koherentzia.

Planifikazio-prozesuan definitu dituzue zuen istorioaren oinarriak. Prozesu honi amaiera emateko, osa ezazue bitarteko horiek guztiek elkarren artean duten lotura islatzen duen eskema; istorioa ordenatzen lagunduko dizue. Baina eskema ez da mugitzeko aukerarik gabe uzten zaituen lokarri bat; aitzitik, istorioak aurrera egiten duen heinean, hasierako plan horretan aurreikusi ez dituzun detaileak sartzeko aukera ematen duen plano da.



### 13. jarduera: eleberriaren kontatzeko era erabakitzea

Nobela planifikatzeko egindako eskeman, ordena kronologikoan antolatu duzue zeuen istorioa, hasieratik amaierarako ordenan.

- Baina nola kontatu nahi duzue? Nondik hasi nahi duzue kontatzen? Askotariko aukerak dituzue.
- A/ Eskeman adierazi duzuen ordena berean
- B/ Amaieratik hasita, atzekoz aurrera
- C/ Erditik hasita, bereziki esanguratsua iruditzen zaizuen tarteko gertakizun, egoera, pertsonaia edo sentimenduren bat abiapuntutzat hartuta.
- Beha iezaiozue arretaz eskemari, hura baita istorioa bere osotasunean hobeto islatzen duen

#### IDAZTEKO GOMENDIOAK

Aurreko jardueran hartutako erabakiak markatu dizue zein den nobelaren hasiera; beraz, ekin idazteari.

Idazte-prozesu horretarako lagungarri izan daitezkeen hainbat gomendio ematen dizkizuegu jarraian

#### LEHEN ZIRRIBORROA IDAZTEKO GOMENDIOAK

1. Idazteari diogun beldurraren ispilua da orrialde zuria. Etsai horri egunero aurre egiteko bitartekorik egokiena ondo antolatutako plangintza edukitzea da. (lekua, egunero idatzi, ordena...)
2. Edozein istoriotan berebiziko garrantzia dute **lehenengo paragrafoek**. Hortxe erabakitzen baitu sarritan irakurleak nobela irakurtzen jarraitu ala bertan behera utzi.
  - Jar ezazue pertsonaia arazo baten aurrean. Modu horretako hasierak jakin-mina piztu diezaioke irakurleari eta irakurtzen jarraitzeko gogoia sortu.
  - Edonola ere, ez dago istorioari hasiera egokia emateko erregularik, askotariko moduak baitaude. Aldiz, badira **desegokitzat** har daitezkeenak eta, ondorioz, saihesten ahalegindu beharko genukeenak. Hona adibide batzuk.
    - Protagonistaren amets batekin hastea. Irakurleak ezin du jakin orindik nor ari den ametsetan, ez non, ez eta zergatik ere.
    - Eguraldiari aipamena egiten dion deskribapen batekin hastea. Eguraldiak istorioan garrantzia badu, txerta ezazue kontakizunak aurrera egin duenean, pertsonaiak aurkeztu eta gero, ez lehenago.
    - Ez txertatu pertsonaia gehiegi lehenengo kapituluan, garrantzitsuenak soilik. Izen, lanbide, ahaidetasun edo ezaugarri gehiegi pilatuz gero, irakurleak ezingo ditu bereizi, eta nahastu egingo da.
  - Gerta liteke istorioari eman nahi zeniketen hasiera egoki hori bat-batean ez asmatzea. Horrela bada, ez geratu; azalduko zaizue idazte-prozesuan zehar.

### 3. Iritsiko da zuen istorioaren amaiera idazteko unea. Nola amaitu nahi duzue?

- Istorioko arazoak konponduta uzten dituzue, onerako nahiz txarrerako. Ez duzue zalantzarako aukerarik uzten
- Arazoa konpondu gabe uzten duzue. Bizitzak aurrera egingo du, eta pertsonaiek arazo horrekin bizi beharko dute.
- Arazoa konpontzen ez duzuen arren, ez dizkiozue itxaropenari ateak Ixten. Beharbada, egunen batean, bestelakoak izango dira gauzak.

## 8 LAN-SEKUENTZIA- Deskribapenaren funtzioa

(Gogoratu deskribapena gazteleraz landuta duzuela)

### 14. jarduera: pertsonaien deskribapenak aztertzen

Deskribapenak hainbat funtzio betetzen ditu eleberri batean, baina nagusia **funtzio esplikatzailea** da, hau da, pertsonaien izaera justifikatzeko eta haien ekintzak ulertzeko eta baloratzeko irakurleari beharrezko informazioak ematea. Kontaketa barruan garrantzitsuak diren informazioak ematen ditu deskribapenak: pertsonaien izaerari, jokabideari, itxura nahiz espazioari buruzko datuak.

- Arantxa Iturberen *Kajoi bat ez da nahikoa* izeneko kontaketa da jarraian eskaintzen dizuguna, baina jatorriz zeuzkan deskribapenak kendu dizkiogu. Zer iruditzen zaizu? Istorioa ulertzeko nahiko informazio ematen al du kontaketak horrela azalduta?

-Oraintxe zigarro bat erreko ninake gustora -esan zion Axunek

Tupustean harrapatu zuen eskaerak, sekula ez baitzuen bere lagun mina ezpainenatik kea zeriola ikusi

-Ez zekinat, baina biok hemen, kafea hartzen eserita, horixe bakarrik falta zaidan, zigarrotxo bat – jarraitu zuen lagunak.

-Izan behar dinat bat edo beste kajoian. Segituan etorriko naun –erantzun zion beti bezain prestu, anaia gazteena ezkondu zeneko hartan kaja bana oparitu zietela eta nonbait izan behar zuela gogoratu. Eta bere gelara Joan zen, Axunek sukaldetik, bezperan medikuarekin izandako eztabaida kontatzen zion bitartean.

Seguridade sozialaren egoera negargarria, ordua aurrez eskatzeko sistema berriaren porrota eta mediku gazteen esperientzi faltaren kexuak erdizka entzunez, bere kajoirik kuttunena zabaldu zuen: mesanotxeko hirugarrena.

Aspaldian ez zuen hari begira egoteko astirik izan, erretiro aurreratua lortzeko paperak betetzen joan zitzaizolako azken asteetako denbora, baina zabalitze hutsarekin mila sentimenduk gainditu zuten:

Harekintxe jabetu zen zertara joana zen bere gelara, Axunek eskatutako zigarroaren bila, eta bi aldiz pentsatu ondoren, horrelako oroitzapen batek bizi guztian hantxe egotea merezi zuela eta esku hutsik itzuli zen sukaldera. -Ez dizkinat ba aurkitzen! –esan zion Axuni

-Harritzen nindunan ba ni! Hik zigarroak? Nondik? –bota zion lagunak. Baina zertan aritu haiz hainbeste denboran?

Ezin ba lagunari esplikatu bost minututan bizi guztiari errebaso emateko denbora izan zuenik eta “bila” lehor bat eman zion erantzuntzat.

-Eta zer iruditzen zain? Ba al zegon eskubiderik? –jarraitu zuen besteak berean.

Une hartan zorabio bat jasan zuen. Mundua bueltaka hasi zitzaion inguruan, haurtzaro errukarria, gaztaro motza eta zahartzaro bakartia, segundotan pasa ziren bere begi aurretik, lagunak medikuarekin izandako disgustoa entzun ere egin gabe.

-Hi Axun, hik uste al dun bizitza osoa kajoi batean gordetzerik badagoenik? –galdetu zion. Zur eta lur geratu zen laguna, kajoiak, bizitzak eta medikuen axolagabekeriak zerikusirik ba ote duten ikertu nahian, baina automatikoki ihardetsi zion:

-Hobe bai! Lan gutxiago izango ginake etxean hori horrela balitz!

Tutik ere ez zuen ulertzen Axunek eta lagunaren osasun egoera kulunkan ote zegoen pentsatu ere pentsatu zuen, ez si eta ez no altxa, koartora joan eta kajoi handi batekin bueltatu zenean.

-Hona hemen nire bizitza! –oihu eginez, balkoitik behera hustu zuen kajoia.

Bi gauza bakarrik utzi zituen: ama zenak Arantzazutik ekarritako errosarioa eta anaiaren ezkontza eguneko zigarro kaja: “Erreko al dinagu bana?” esanaz, lagunari eskaini zion bat, eta kafea hartzen jarraitu zuten, zigarroei ere, urteekin pasa eta zapore mikatza jartzen zaiela jabetu ere egin gabe.

Aurreko testuari kendutako deskribapenak dira hauek. Taldean bilduta, txerta itzazue kontaketan, dagokien lekuan, noski.

1

Bigarren errenkadan, txukun-txukun, puntillak, bi ispilu txiki, San Ferminetan tonbolan tokatutako bi jaboi kaxa, Igeldon egun pasa egindakoan jan zuen helatuaren makila eta hiru faktura. “Faktura hauek ere, nonbaitekoak izango dira ba”, esan zion bere buruari, eta kajoia zabaltzen zuen bakoitzean egiten zuen legez, hirurak zabaldu zituen, eta zein, zein egunetakoa zen begiratu. Behin begiratu, frogatu, gogoratu eta tolestatu ondoren, bere tokian utzi zituen.

Benidorko postalak sorpresaz harrapatu zuen. “Hau ere hemen gorde al nuen?, galdegin zion harriduraz aurreko ispluari, horrelakorik nolaz egin ote zuen ezin erantzunez. Postalentzat aparteko kajoi bat zeukan eta Benidorko hura han topatzeak harriduraz bete zuen. Firma irakurri zuenean garbitu zitzaizkion kezkak. “Klaro” batekin, lasai geratu zen.

2

...u opari preziatuen ondoan, dentadura postizoa, zaharra, bere garaian bitxientzat izandako potetxoan sartua (“badaezpada ere egunen batean urrezko engantxeak aprobetxatu nahi baditut ere, hementxe egongo da” esanaz gordetakoa), eta alboan, urteetan zehar hainbestetan begiratu eta hain gutxitan erabilitako pinturak. “Hauek ere, berri-berriak daude eta igual norbaitek nere orde z ibiliko ditu”, bururatu zitzaion, gauza horietan ere modak zeresan handia duenik konturatu ere egin gabe.

3

Ama zenak Arantzazutik ekarritako errosario beltza eskuinetan; ondoan, izeba monjak Erromatik bidalitakoa (“hau Aita Santuaren ondoan egon da gero, eh?”), eta pixka bat estalita, ahizpak Lurdesen propio berarentzat erosi zuen urdina

4

...irugarren errenkadan, haiek ere txukun-txukun, anaia gazteenak soldaduskan zegoela bidalitako karta maitea, hori-horia eta irakurtzearen poderioz izkinak ongi gastatutako paperean, eta fotografia. Gainean, zigarro paketea.

Zertaz baliatu zarete deskribapen bakoitza dagokion lekuan txertatzeko?

Zein da sekuentzia horietako deskribapen objektua?

Nolakoak dira kontaketa horretako pertsonaiak? Zerk ematen digu horren berri?

Zein dira pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak, fisikoak nahiz izaerari dagozkionak?

**15. jarduera:** Nobela idazten hasi aurretik, fitxetan pertsonaien ezaugarriak finkatu dituzue, nolakoak diren definituz: itxurari nahiz izaerari dagozkion ezaugarriak, ohiturak, gustuak, gabeziak, desioak...

Baina noiz eta nola eman informazio hori nobelan?

Informazio hori guztia ez zaio irakurleari bat-batean eta kanpotik azaldu behar: *Anderrek 16 urte bete berri zituen eta zeukan adinerako mutil altua zen. Ikasketak oso gogoko ez bazituen ere, oso mutil jatorra eta kirolari ona zen. Gelako neska bat gustatzen zitzaion, Ane.*

Pertsonaia pixkanaka aurkeztea da egokiena, kontaketak berak eskatzen duen heinean. Aurkezpen hori kanpoko narratzaile batek egin dezake, protagonistak berak, edota beste pertsonaia batek.

Pertsonaiak aurkezteko eta ezagutarazteko, oinarritzko ezaugarriak aipatzeaz gainera, hainbat modu daude:

- Egiten duenaren bidez. Adibidez, pertsonaia bat oso bortitza dela zuzenean esanda baino hobeto adieraziko dugu izaera hori atearik indarrez ixten edota lagunekin borrokan azaltzen badugu.
- Pentsatzen duenaren bidez
- Esaten duenaren bidez
- Berataz beste pertsonaiek pentsatzen edota esaten dutenaren bidez.
- Hainbatetan, aurreko jarduerako testuan bezala, lekuaren deskribapenak berak ematen du pertsonaien berri.

Edonola ere, koherentzia mantendu behar da pertsonaia jakin bati ezarritako ezaugarrien eta pertsonaia horrek istorioan zehar egingo, esango, pentsatuko... dituen gauzen artean. Baldin eta istorioak berak aldarazten ez duen.

### **Pasarte hauek pertsonaiak hainbat modutan aurkezten dituzte. Irakur itzazu:**

A

Emaztearengandik banatu berria nintzen Lauaxeta berpiztu zen garai hartan, eta etsipenak guztiz mendea hartua ninduen. Sorkunde gabe, 40 urteko agure zahar bakarti bat nintzen; "arratsari" nengoen, Lauaxetak esango zukeen moduan; "lainoz akribilatutako bihotza" nuen golkoan, Iñigo Aranbarrik esango zukeen moduan.

Lana uzteko asmoa buruan bueltaka zebilkidan ordurako. Kulturako erredaktore nintzen Euskaldunon Egunkaria-n, aspaldidanik, kazetaren sorreratik, eta guztiz galdua nuen hastapenetako interesa eta bizipoza. Nazkatuta ninduten, leporaino Beteta, egunero tratatu behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo antzerki zuzendari, bertsolari, dantzari eta abarrek.

Lanaz aparteko ilusiorik ere ez nuen, ordea, garai hartan, eta horrexek eusten ninduen eguneroko zeregin hutsal hari lotuta. Aizarnazabalen jaio nintzen ni, Urola bailarako herririk gordeenean, eta gazte samarrik Tolosara ezkondu, baina Sorkundek utzi ninduean Andoinen hartu nuen pisu koxkor bat errentan, lantokitik gertu, Martin Ugalde idazle eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko Ohorezko Lehendakaria jaio zen kale berean, Kaleberrin. Lanetik etxera itzuli orduko telebista pizten nuen garai hartan, egunero, inon ziren lehiaketarik lerdoenak edo futbol partidariak aspergarrienak ikusteko prest. Jai egunetan mendira irteteko joera nuen hala ere. Horixe zen garai hartan egiten nuen ganorazko gauza bakarra. (...) Juan Luis Zabala, *Agur, Euzkadi, Susa*.

C.

Villamedianak bi taberna besterik ez zituen. Hoberena, garai batean casino izandakoa, plazaren ondoan zegoen, eta mahai bereziak zeuzkan jokorako, oihal berdeekikoak eta burdinaz eta marmolez eginak. Bertako bezero edo nagusien sinestera, hara ezkerreko jendea bakarrik biltzen zen, gerla errepublikaren alde egindakoak eta elizara azaltzen ez ziren gazteak. Beraien iritzirako, gainera, bestera joaten ziren Villamedianatarrek herriko fazistei, abadeari eta, ematen zieten amore, eta eskubi puntako politikoen zale ziren.

*Nagasaki* zen beste taberna horren izen bitxia, eta herriaren irteeran zegoen. Hemen ere jokatu egiten zen, baina altzairu eta plastikozko mahai koloretzuetan. Hara joaten zirentzat, ordea, herriko tabernak ez ziren ideologiaren arabera sailkatzen, baizik eta egoera ekonomikoak agindu bezala. Hala, plazakoa aberatsena zen, lur eta ondasun asko zituztenena. Beraiena, berriz, langile soilena, morroiarena, pobreena.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein

B.

Eskuarekin agur egiten zigun norbait zetorren gu eserita geunden bankurantz. Kanposantuko paseo hura erdi ilunbetan zegoenez, hasieran ez genion antzik ere hartu, eta –paraje hartan ezagunik ez genuenez– umore onean eta mundo guztiaren lagun sentitzen zen festazalaren bat izango zela pentsatu genuen. Baina pixka banaka, figura hura zehatzuz joan zitzaigun. Zerbait txuri antzematen genion buruan.

“Oso luzea duk. Bi metrotako gizona gutxienez”, esan nion lagunari.

“Eta sonbreilu bat zekarrek eskuan”, esan zidan berak.

“Beraz...”

“Restopeko aitona bitxi hura duk!” bukatu genuen, barre eginez, biok batera. Gizon luzeak, jada gure parean, bankuaren inguruko farolaren kontra jarri zuen bizkarra.

“Ipuin askotzaz ere politagoa badakit nik!” deitu zigun orduan.

“Bazirudik Heriotzak Bagdadeko morroiari bezala segitzen digula”, xuxurlatu nion lagunari.

“Ez duk hori kasua”, erantzun zidan lagunak. “Nik uste aitona hau hi bezalakoa dela. Honek ere edozein gauza egingo lukeela ipuin bat kontatzeko aukera izatearren”.

“Eseri zaitetz hemen, gizona”, esan zion gero berari.

Inguratu egin zitzaigun, baina zutik gelditzea nahiago zuelako jestuak eginez.

“Nahi al duzu zerbeza pixka bat?” eskaini zion lagunak.

Ezezkoa egin zuen buruarekin.

“Ipuin politago bat badakizula, esaten duzu. Baina zein baino politagoa?” galdetu nion. Azken batean, ez zen proba besterik. Lela xamar ikusten bainuen, sobera edan dutenen begi galduekin, eta kosta egiten baitzitzaidan haren baieztapena serioski hartzea.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein

A B C

Berataz beste pertsonaiek esaten edota pentsatzen dutenaren bidez ezagutzen dugu protagonista			
Pertsonaia bere burua aurkezten du, bere egunerokotasunean egiten dituenak azalduz.			
Eszenatokiaren deskribapena aitzakiaz hartuta, bertan biltzen den jendea deskribatzen da.			

## 16. jarduera: pertsonaiak identifikatu

Identifika itzazu aurreko deskribapen bakoitzak pertsonaiari edo pertsonaiei buruz ematen duen informazioa.

### A. TESTUA

📌 Testu honetan, protagonistak, bere biografiako hainbat datu emateaz gainera, bere barne-egoera deskribatzen du

- Bere biografiako zer datu ematen ditu?
- Zein da bere barne-egoera?

📌 Bi modutan ematen digu protagonistak bere barne-egoeraren berri: zuzenean adieraziz eta egiten duenaren bidez. Identifikatu itzazu testuan aipatu berri ditugun modu horietako bakoitzaren bidez protagonistak berak ematen duen informazioa.


- Zer adierazten digu zuzenean?
- Zer, egiten duenaren bidez?
- Nola baloratzen du berak egiten duen hori?

### B. TESTUA

📌 Bistakoa da testu honetan aipatzen diren taberna bateko eta besteko bezeroek bi talde osatzen dituztela

- Nola ikusten dute euren burua plazako tabernako bezeroek?
- Eta bezero horiek beraiek nola ikusten dituzte Nagasaki tabernara joaten direnak?



- Zer diote Nagasaki tabernako bezeroek plazako tabernan biltzen den jendeari buruz?
- Eta nola ikusten dute euren burua?
-  **Aurreko galderari erantzuna ematean ohartuko zinenez, Villamedianako bi leku horietara azaltzen diren biztanleek elkarrekiko ikuspegi kontrajarriak dituzte. Taberna bakoitzaren deskribapenari erreparatuz, noren ikuspegia egingo zenuke zeure? Arrazoitu erantzuna**

### C. TESTUA

- Bi pertsonaiek hirugarren bat deskribatzen dute testu honetan, eskuarekin agur eginez inguratu zitzaien pertsonaia. Aztertu ondoren, osa ezazu koadroa. Arrazoitu emandako erantzunak testuko adibideak erabiliz.

NOLAKOA DA?		NOLA DAGO?	DITUEN ZALETASUNAK
Ezaugarri fisikoak	Izaera		

**Ikasi duzunaz** baliatuz eta irakurritako ereduren bat imitatuz, idatz ezazu zure nobelako protagonistaren edota pertsonaia baten deskribapen-sekuentzia, gero nobelan txertatuko duzuna. Horixe izango da idatzi duzuna hobetzeko egingo duzun lehen urratsa.

## 9 LAN-SEKUENTZIA – Eszenatokien deskribapena

Nobela batean ekintza garrantzitsuenak garatzen diren lekuaren berri ematen dio narratzaileak irakurleari: non dagoen, nolakoa den, zein elementuk osatzen duten...

Baina **espazioaren deskribapena** ez da tokiaren eta bertan dauden elementuen izendapen hutsa. Aurrez irakurri dituzun deskribapen batzuetan ikusi duzunez, erlazio bat sortzen da pertsonaien eta beraiek mugitzen diren espazioaren artean. Eta narratzaileak ez du ahaztu behar inoiz erlazio hori, horrexek ematen baitio, hein handi batean, errealitate efektua kontaketa eta, ondorioz, sinesgarritasuna. Lekuak eta pertsonaiak zentzua ematen diote elkarri.

Espazio jakin bat deskribatzean, haren nolakotasuna islatzen duten elementuak eta ezaugarriak ez dira edozein eratan aurkezten; aitzitik, aurrez finkatutako **deskribapen-plan** baten arabera ordenatzen eta aurkezten ditu narratzaileak datuak. Hauek dira deskribapen-plan mota erabilienak:

- **Lekukoaren begiradaren joan-etorria:** goitik behera, alde batetik bestera, behetik gora...

Herriko atalaia ni bizi nintzen kaletik gora zegoen. Ardo bodegen etxetxoekin hornitutako gailur batean. Handik begiratu eta eskuinetara Villamedianako teilatu guztiak hartzen ziren mende, eta elizaren murrer sendo eta pitzatuak ezkerretara, berriz, hamar bat kilometroz eta Pisuerga ibaia baino harantzago zabaltzen zen lautad. Basoa, eta baso hartaraino gurutzatzera zihoazen bi paramo edo mendi antzuak, begiratzailearen bizkarretara gelditzen zire.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein

- **Ikus-eremuaren zabalkuntza edota murrizketa:** ikuspegi orokorra ematek xehetasunetara iristea edota alderantziz.

Alderantzizko norabidean zihoazen autoak metaturik zeuden zubi luzera irten zen. Euriak autoen gainaldeak jotzen zituen. Leihoak itxita zituzten eta barrutik gandutuak. Atzean, barrukoan aurpegiak lausoturik ageri ziren. Norbaitek kristala garbitu zuen barrutik eta keinu aztoratuak egin zizkion.

Gudrun Pausewarg, *Hodeia*, Elkar

- **Eszenatokiaren zatietan zehar-ibilbidea**

Hotz gehiegi egiten zuen formulismoetarako, eta, lorategian barrena, edifiziorantz gidatu ninduen. Pasaeran arrosategiak ikusi nituen, tenis zelaiak, harkaitzetan egindako kobazuloak zeharkatzen zituzten errekato artifizialak; guztiak utzita, lahar eta osinez beteak. Etxea bera zainduagoa zegoen, baina eranskin munstruos batzuk zeuzkan leiho pertsiara berdekoetan: bere gordintasunean utzitako barrote burdinazkoak. Aurrena, inork alde egin ez zezan jarritakoak zirela otu zitzaidan. Baina areago pentsatu eta helburu larriago bat zeukatela konturatu nintzen; inork burua leiho haietatik bota zezan galaraztea, alegia.

Bernardo Atxaga, *Obabakoak*, Erein

**Datuak ordenatzen dituzten adierazpenek** markatzen dute deskribapen-plan mota. Erreparatu testuetan azpimarratuta dauden hitzat adibide gisa.

**17. jarduera:** a/ zenbait eszenatokien deskribapenak aztertu (eszenatokien deskribapen plana azaldu)

Taldean jarrita, irakur itzazue jarraian emandako testuak, eta berezi zer deskribapen-plan motari erantzuten dion bakoitzak

Identifika itzazue testu bakoitzari dagokion deskribapen-plana markatzen duten hizkuntza elementuak edota adierazpenak.

#### Ekidazu

Olazaharren apur batean egon, eta meza nagusira etorri naiz, eta hementxe nago orain elizpean.

Ekidazuko eliza ez dago herri-herrian, alboko aldean, goienean baizik, Erdi Aroko gaztelu bat bezala. Eta ikustoki zoragarria da elizpe hau. Hemendik ikusten da ahalik hobekien herria.

Ekidazuren bihotza nire oinetan dago, argi eta gorri. Izan ere, euriak garbitu egin ditu teilatuak (telesio eltxo itsusiak ere garbitu ditu, edertu ez).


Herri txikitxo bat izan arren, bihotz handia du Ekidazuk: aiuntamentu berria (herriko etxe zaharra bonba batek desegin zuen); aiuntamentuaren aurreko plaza ederra, zuhaitz asko inguruan eta iturri eder bat erdian duelarik; pilota-leku zahar bat, eskola berriak, hiruzpalau tailer; Santi indianoaren txaleta, trenaren geltokia, hamar taberna (hori bai!), kafeetxe bat eta hogeiren bat etxe handi eta txiki, zahar eta berri, kale batzuen barruan.

Herriaren bihotz barnetik erreka bat pasatzen da bihurka, kiribilika, soro eta landa zabalen erditik. Erreka txukun garbia izan zen lehenago, mendi-negarrez, arrainez, zeruz eta zumez betea. Baina, orain, txifa txakurren kolorearen antzeko ur urdinabar zikina darama. Iturburu dagoen mendipean dago egon ere Don Trifonen granja famatua zigurat bat bezala.

Han, hor; hemen, sakabanaturik, artalde zuri-gorri baten antzera, berrogeita hamar baserri inguru ageri dira neguko berdearen altzoan etzanda. Eta pinudi asko, iparraldean eta hegoaldean, sortaldean eta sartaldean, pinudi asko alde guztietan; pinudiak: gaurko baserriarren urre-meatzeak.

Eta ,azkenik, han, menditxo baten gainean, haitz artean, nire etxe txikitxo aitzin zuria, armiarma langileek egindako sarez apaindua, mila txori ezberdinen kantu gozoz alegeratua, haize ederrez inguratua...; nire kabi maitea, munduko kabirik baketsuena, askatasun paradisua...

Mikel Zarate, *Haurgintza minetan*, Elkar



Mugarreko harkaitzaren barrenean, iratze gorrituz estaliriko magalea arroka bat datza, eta arrokaren gainean Etxaburuko dorrea. Karratua, argal eta altua, heroien garaiko arrasto baten gisan; harririk harri igotzen dira huntz hosto horituak bere horma zaharretan gora. Lau aldeetara ditu leihoak; baina guti eta ttipiegiak sekreturik alde egiten uzteko. Atea, mendi alderantz du. Atzealderantz, amildegia eta, han behean, erreka garden bat, landare umel eta harritxo borobilduen artean irristatzen.

Joseba Sarrionandia, *Narrazioak*, Elkar


2

3

Heriotza ziurretik ihes egin beharrak arindu egiten zizkion hankak, eta kemen trinko bat ematen. Ez zen jada bere gelan zain egondako kondenuatu otzana.

Egunsentiaren lehen txinta zen, laranja kolorea hartzen ari zen zeruaren ertzetako bat. Iritsi zen basoaren tontorrera eta, bestaldera begira jartzearekin batera, bailara bat begiztatu zuen, eta baserri auzune bat hantxe ezarria. Kontatu zituen etxeak: bost ziren guztira, eta errekatxo bati begira zeuden denak; errekatxoari eta bideari. Bost etxeetatik lau zuriz pintatuak zeuden, eta zehazki nabari ziren lur gaineko ilunpean; bakar bat bailararen sarreran bertan zegoena, iluna zen, harrizkoa.

Zuhurki jaitsi zuen muinoa, bai baitzekien, Kanadako garaietatik, ibilera hartan zegoela arriskua, orduan bihurri zezakeela orkatila eta aurrerabiderik gabe geratu. Behin behean, jarri erreka ertzeko sastraka baten babesean eta bailarako lehen etxe hura aztertu zuen. Ez zuen bizitoki bat ematen, ez une hartan behintzat. Pistola trajearen galtzetako poltsikotik atera, eta errekatxoa zeharkatu zuen oinak harrietan jarriz. Hutsik zegoen etxea, eta errotarri bat zeukan beheko solairuan. Baina ez zegoen irin arrastorik, eta tresneriarik ere ez. Aspaldi utzitako errota izan behar zuen. Leku txarra zen han gordetzeko. Ezin zen han gelditu.



Bernardo Atxaga, Soinujolearen semea, Pamiela

4

Durkehim-eko estazioa hutsik geratu da. Bigarren klaseko itxaron-gelan, lehen baino kolila gehiago lurrean, hauts gehiago, bokadilo paperak. Egunkariak aulki gainetan.


Giséle orain ere bakarrik dago. Larruzko maleta bat alboan eta liburu bat esku artean duelarik, baina ez du irakurtzen. Merkantzi baten maniobra hotsa entzuten da... Bonbilla bat piztua dago egun argiari konpetentzia egiten bezala... Hormak propagandazko kartekez beteak. BILLETE FAMILIARRAK ... SPORT D'HIVER EN SUISSE, PRENDEZ LETRAIN S.B.B .... UND AM REISEZIEL UMSTEIGEN BITTE IN EINEN MIEI WAGEN DER ... PRENNEZ LETRAIN ...

Giséle ez da mugitzen. Noizbehinka bakarrik ondo zaindutako esku bat pasatzen du bekokian zehar.

Kanpoan dena hila dago. Baita merkantziako trena ere geldirik. PTT-ko karroak errenkan hurrengo trenaren zain...

Aurrean dagoen fabrika baten tximiniko kea zerura doa zuzen-zuzenik batere zabaldu gabe. Oso goian bakarrik egiten ditu espiral batzuk.

Ramon Saizarbitoria, *Egunero hasten delako*, Erein



b/ zeuen eleberriaren eszenatokia deskribatu

- Ikasi duzuenaz baliatuz eta irakurritako ereduren bat imitatuz, idatz ezazue zuen eleberriko eszenatokiren baten deskribapen-sekuentzia, gero nobelan txertatuko duzuen.

## 10 LAN-SEKUENTZIA – Kontakizunaren erritmoa

Kontatzen den istorioa, hasten denetik bukatzen den arte, denbora jakin batean gertatzen da: egun bat, urte bat, urte mordoxka bat. Denbora erreal horri istorioaren barne-denbora deitzen zaio.

Beste gauza bat da istorioaren benetako denbora hori nola islatzen den kontakizunean. Izan ere, istorioaren denbora manipula dezake idazleak, hau da, kontaketa ireaupena luzatu edo laburtu egin dezake testu zati handiagoa edo txikiagoa eskainiz. Horrela, gerta daiteke protagonistaren bizitzako bost minutu kontatzeko, idazleak bost orrialde erabiltzea, edota bost urteko gertakizunak azaltzeko, bost lerro nahikoa izatea.

- **Kontakizunaren erritmoa bizkortzeko** (istorioaren denbora luze bati lerro gutxi eskaintzeko) bitarteko ohikoenak hauek dira:

**Elipsia.** Salto bat ematen da kontaketa eta istorioarentzat garrantzirik ez duen denbora-tarte jakin bat aipatu gabe uzten da. Edonola ere, denbora salto horiek kanpoko adierazleek markatzea da egokiena: *pertsonaia lanean hasi da; hiriz aldatu da; negua iritsi da; bere bigarren haurra izan du...*

**Laburpena.** Denbora-tarte luze samarrean gertatutakoa hitz gutxitan azaltzen da.

- **Kontakizunaren erritmoa moteltzeko** (istorioaren denbora motz bati lerro asko eskaintzeko) bitarteko ohikoenak hauek dira:

**Deskribapena.** Ekintzen kontaketa etenez, tokiaren, egoeren, sentimenduen, sentsazioen edota pertsonaien deskribapenek kontakizunaren erritmoa moteltzen dute.

*Orain, esaterako, aulki txiki batean eserita, urmael txiki biribil bat dut aurrean, neure lagun bakarra. Ez uste izan berak apaindura finak dituenik: iturri apala da guztiz, niri gustatzen zaizkidan bezalako: goroldioak berdez margotua, iturburuaren xirripa etengabeaz besterik ez du. Eta hor ari dira txirri herabetiaren tantotxoak., jautzia, uraren ispilua urratzen; eta gainean igerika ari diren hosto-puska arinak., hotzikarak hartuta gisan, gora eta behera mugiarazten.*

Txillardegi, Leturiaren egunkari ezkutua, Elkar

**Bakarrizketa.** Pertsonaiak bere buruarekin duen solasa da. Pertsonaia, beste bati edota irakurleari ari balitzaio bezala, bere buruari ari zaio hizketan bakarrizketa batean.

*Pentsatzen ari naiz herrian honezkero zabalduko zela .Axentxio ez zen isilik geratuko. Denak gehiago jakiteko irrikaz egongo dira, eta ez diet ezer esango: "nik arrazoi" besterik ez dute entzungo nire ahotik Horixe izango da nire mendekua.*

Arantxa Iturbe, *Lehenago zen berandu*, Alberdania

**Barne-bakarrizketa.** Pertsonaiaren barruko ideien nahasketaren, zurrunbiloen, borrokaren... adierazpena da. Inkontzientearen jarioa atzera eta aurrera dabil saltoka, elkartzeko mental libreak eginez eta gai batetik bestera igaroz. Bat-batean burura datorkiona, bere horretan, adierazten du pertsonaiak barnebakarrizketan.

*Tira, Antxon, ez dugula jolaserako denborarik, ez, zapatak konpontzen dituzu, gaur botak, boi, amonak erregalatutako aterkia ere bai, gero jasoko ditugu, bale, tira, panpox, bederatzia laurden gutxi dira, baietz, arratsaldean jasoko ditugula, bueno, ez orain galtzak kendu, atzo ikusi nuen grano hori, gauean zainduko dugu, pomada, ez diot laborari suabizanterik bota, bueno, bigunduko zaizkizula gero galtzak, seguro, tira, goazen, deitu zuk aszensoreari, neguan ez zinen oraindik botoira ailegatzeko, ez eta boten puntan zutituta ere.*

Arantxa Urretabizkaia, *Zergatik panpox*, Erein

- **Pertsonaien hitzak** ere islatzen dira kontaktetan, bere horretan, **estilo zuzenean**; edota narratzailearen ahotan jarrita, **zeharkako estiloan**. Pertsonaien hitzak azaltzeko bi modu horiek ere eragina dute kontakizunaren erritmoan.

**Estilo zuzenean** adierazitako elkarrizketaren erabilerarekin bat egiten dute istorioaren eta kontakizunaren denborak. Izan ere, denbora errealean aurkezten da esaten dena.

**Zeharkako estiloan** adierazitako elkarrizketen bidez, aldiz, kontakizunaren erritmoa bizkortu egiten da zertxobait. Izan ere, narratzaileak laburtu egiten du, sarritan, pertsonaiek esandakoa.

## 18. jarduera: ereduak aztertzen

Deskribapenak funtzio esplikatzaileaz gain kontakizunaren erritmoa mantsotzeko funtzioa ere badu. Funtzio horren lekuko duzue Joxe Austin Arrietak idatzitako *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* nobelaren hasierako deskribapen hau.

Irakur ezazue testua eta errepara iezaiezue hurrengo ezaugarriei:

- **Kontakizunaren erritmo motelak kontagaiarekiko duen egokitasuna, eta horretan xehetasunak aipatzeak duen eragina.**

Inoiz ez jakin batek gure sukaldean freskotasan apur bat egon dadin zer den hobe: patioko leihoa zabalik ala itxita eduki. Zabaltzen baldin baduzu, gurean pilatu den ke usaintsu itogarri guztia kanpora doa, bai, baina baita auzoko beste hamahiru sukaldeetako gurera sartzen ere. Alabaina, une honetan amak "ireki ezak leiho hori, bestela ito beharrean gaituk-eta" esan eta jeiki egin haiz: maratila gogorrari eragin eta aski indarka tiratu behar duk heureganantz, leihoaren bi alderdiak elkarri ohi baino itsatsiagoak baitaude. Gaurko sargoriak zura dilatatu eta nahiko lan leiho demontre hau irekitzen, pentsatzen duk. "Ya está", diok, azkenik leihoa kirrinka luze batez zabaltzen zaianean. Hor dago patioa, hemen bertan. Lehenengo inpresioa nahiko zuzpergarria da. Aire pittin bat bederen sartzen da, ez askorik, egia esan, gure patio hau zoko hertsia mehar bat baita, baina zerbait: gaurko sargoriaz ez zitekeen gehiagorik espero. Laster erasotzen dik, ordea, ke-adar lodi batek. Beheko sukalde-leihoetatik gora datorren lurrun mordo likitsa, patio lizunduaren paretetako pitzatuei darien sargori hezearekin nahasia. Frejidura usaina, arrosesne, "Faria" eta kafe egin berriaren usainak, zein zein zen bereizten nekeza gertatzen den uholde trinko batean. Tendereteak, zenbaitetan arropa zintzilik, beste zenbait eskeleto hutsik. Andre Marianeko leihoan, ezker aldean, iltze batetik eskegita kaiola bat. barruan eper bat. Andre Bitxorineko leihoan, eskubi aldean, bakailau-isats bat, gedarrez zikin ez dadin plastiko batean bildurik: bakailau burugabetuetan gatz erdi ustelaren usaina ez da gaur; Abuztuaren 15eko bazkalordu honetan, bestetan bezain sarkor iristen gure sudurretara. Hura baino usain bortitzagorik bada patio bazterretan. Eper presoaren paparro (txor-txor) sinkopatua: hura izaten da etxape osoan soinurik nabarmenena gehienetan, baina orain ez: bada soinu zaratatsuagorik, Abuztuaren 15eko bazkalordu honetan. Hamalau elkarrizketa diferenteren gorabeherak, murmurio eta farre algarak, txanpan botailen deskortxeak, mahai tresnerien eta baxeren tintineoak, eta nonbaitetiko irrati piztua: "escuchen la comparsa de las ñudes y artxaias por gentileza de manufactura-ra-ras feli-li-lix ramo-mo-mos". Izan ere, ez baita batere erraza erabakia hartzen, leiho hau zabalik ala itxita egotea komeni ote den. Kaleko balkoiak ere zabalik ditugu, bai, baina hain daude sukaldetik urruti non etxe barneko ate guztiak zabalik eduki arren ez baita honaino haize izpirik ere ailegatzen. Eta ia hobe ez iristea, pentsatzen duk, kalean ere hego-haize sargoritsu itogarria besterik ez baitabil, Abuztuaren 15eko arratsalde hasberri honetan.



Idazten ari zareten nobelak, segur aski, izango ditu kontakizunari lerro batzuk gehiago eskaintzea merezi duten uneak. Horretarako, deskribapenak idaztea proposatzen dizuegu oraingoan.

- Irakur ezazue patxadaz dagoeneko idatzita daukazuen nobela zatia, eta hauta ezazue deskribapena txertatzea merezi duen une hori.
- Zer deskriba dezakezue une horretan? Pertsonaiak ikusten duena? Sentitzen duena?
- Unitatean emandako nahiz irakurtzen ari zareten nobelako deskribapen-sekuentziak imitatuz, idatz ezazue testua eta txertatu zeuen nobelan.
- Irakur ezazue berriro idatzita daukazuen nobela zatia. Irakurketa horretan erreparatu idatzi berri duzun deskribapenaren egokitasunari, aurrez idatzitakoarekiko nahiz ondoren esandakoarekiko.

Kontakizunaren erritmoa moteltzeko beste bitarteko bat **barne-bakarrizketa** da.

Pertsonaiak bere inkontzientean dituen ideiak eta pentsamenduak adierazten ditu barne-bakarrizketan, desordenatuta, logika arrazional handirik gabe.

Inkoherentzia hori hainbat bitartekoren bidez islatzen da testu idatzian, esate baterako: puntuaren edota komaren etengabeko erabilera, esaldi oso laburrak, zenbaitetan hitz bakarrekoak.

Barne-bakarrizketaren erabilera, kontakizunaren erritmoa moteltzeaz gainera, baditu **funtzio estilistikoak**:

- **Sinesgarritasuna** ematen dio istorioari. Izan ere, pertsonaiak beraiek dira irakurlearekin hitz egiten dutenak, narratzailearen bitartekaritzarik gabe .
- **Hizkuntza-erregistroen aberastasuna**. Azken finean, pertsonaia bakoitzak bere hizkera propioan hitz egiten du, eta horren bidez haren ezaugarri kulturalak eta sozialak identifika ditzakegu .

### 19. jarduera: barne-bakarrizketaren ezaugarriak identifikatu

Irakur ezazue alboko barne- bakarrizketa, eta saia zaitezte goian aipaturiko ezaugarriak bertan identifikatzen.

- Ba al du logika arrazionalik pertsonaiak diotenak?
- Nola islatzen da hori testu idatzian?
- **Pertsonaiak erabiltzen duen hizkuntza erregistroa kontuan hartuta, zein dira zuen ustez pertsonaiaren ezaugarri aipagarrienak?**

A ver zer utzi didan amak papeatzeko: ohe gainetik altxa eta sukaldera joan zen, uummm, *spaghetti* a *la carbonara*, etzegok gaizki, mikrouhinetan sartu, tik-tik-tak den- bora tekleatu, minutu eta erdi nahikoa izango duk, kriston gosea zeukat, ( ... ) me *voy a poner los botas*. Zarata itzela kaletik, taberna guztietako musika guztiak elkarri horzkazka. "Donostiako Ikatz kalean bizi eta oraindik ikasketetan konzentratzea nahi dute, *de-qué-von*. Abuztua 31. Egia, urteurrena duk-eta! Irailean 3an, Termodinamika. Irailaren 3ean Resistencia de materiales. Bi penko. ( ... ) eta orain zer?: xerrak, itsas oilarrak, buñueloak-edo nola deitzen dira hauek?, ez buñueloak ez, beste izen bat ditek, bah, berdin da. Gazta pixka bat gehiago, eta kitto ( ... ) Pasatua ote? Pasatua, ez: *zihatua*, esaten du amonak. Balkoira irten zen: a ze giroa.( ... ) Zihatua. Nire zaharrak bezala. ( ... ) Nik ze kulpa daukat. Nik... bah, betiko leloa. Ederra zegok horko tipa hori. A ze mobida kalean. Eta ni hemen, balkoian, bokadilo bat jaten. Gogo putarik ere ez ikasteko. Hiru egun eskas. Eta nik ze kulpa daukat. Nik Historia egin nahi nian, ez Injenieritza. *Resistencia* de moteriales, Termodinamika: me *la sudan*.

Joxe Austin Arrieta, "Ekaitz" *Lobur Aroz*, Txalaparta

## 20. jarduera: zeuen eleberria berrikusten: denbora erreparatu

Orain arte kontakizunaren denbora moteltzeko bitartekoak ikusi ditugu: alde batetik, deskribapenak, eta bestetik, barne-bakarrizketak. Baina, lehen esan dugun bezala, badaude denboraren erritmoa bizkortzeko bitartekoak ere, adibidez, **laburpena** (gertatzen dena hitz gutxitan kontatzea) eta **elipsia** (gertatzen dena ez kontatzea)

- ✚ Azter itzazu pasarte hauek eta identifika ezazu noiz erabili duen idazleak laburpena eta noiz elipsia.
- ✚ Denbora-saltoak kanpoko adierazleen bidez seinalatu ohi ditu idazleak kontakizunean.
- ✚ Testuotako zein adierazpenek markatzen dute identifikatu dituzun denbora-saltoak?

"Etxe handia", askotan entzuna nuen. Lehen aldiz, ama zenari. Gogoan dut nolatan, zeren eta ni bere eskutik nindoan, zuhaitzez inguratutako bide zabal eder batetik; ez biok bakarrik, baizik eta beste eskutik, amaren eskuinetik, buruan txapel gorria zeraman andre batekin gindoazen hirurok ez dakit nora, eta ama negarrez hasi zenean altxa zuen ahotsa minez beterik, esanaz: "Etxe handira ez!"... bi aldiz; gogoan ditut biak. Gu Bilboko gerratik etorri berriak. Nik lau urte, beraz.

Gero Ospitalean bertan entzun nuen han hemenka gauza bera, gehienetan haserreak jota edo isilka esana. Baina ez nion esanari zentzurik hartzen... Behin, ni kalean nenbilela, oraindik bizi zen ama, eta kaletxikin beste haur batekin jolasean, deitu zidan andre batek:


✚ "Pedrotxo! Etxe handira bizi zara, eta ez dago zure amak. Behin bertan gehienetan haserreak jota edo isilka esana, "Pedrotxo!", amatxoren laguna zen, eta beste emakume batekin hizketan, esan zion nire aurrean: "Orain Etxe Handian bizi dira ama eta biak". Nik banituen zazpi urte, komunio txikia egin berria nintzen parrokan, eta andre hura eta laguna bertan bera utzi eta amatxorengana jo nuen arineketan. "Etxe handia" non zegoen galdetzera; ama dagoeneko ohean zegoen gaixo, eta esan zidan Ospitalari deitzen ziotela hala, jende asko bizi zelako.

Martin Ugalde, *Pedrotxo*, Elkar



Negar luzeak egin ditut amatxo galdu nuelako, noski, baina niri zer gertatuko zitzaidan ez nekielako ere bai... Etorri ziren aitaren lagun batzuk ni bereganatzeko asmotan, haiekin ongi egongo nintzela. Baina nik esan nien mojei hasieratik, ez nuela etxetik kanpora inora joan nahi, amatxo bezala nintzela ni ere hangoa. Eta gezurtxo bat ere esan nuen haietako andre batek eskutik hartuta indarka eraman nahi izan nindueanean: amari agindu niola berari zerbait gertatzen bazitzaion bizitzera beste inongo etxera ez joateko. Aitatxo itzuli artean behintzat! Eta asmatu egin nuen, hor bertan utzi ninduten denek bakean. Urte luzeak pasa dira harrez gero.

Martin Ugalde, *Pedrotxo*, Elkar



## 21. jarduera: pertsonaien elkarrizketak: pertsonaien hitzak eta puntuazio markak

Bi modutan adieraz daitezke pertsonaien hitzak eleberrietan: **estilo zuzenean** (pertsonaiek beraiek esaten dutena hitzez hitz jarriz) eta **zeharkako estiloan** (pertsonaiek diotena narratzailearen ahotan jarriz).

- Berreskura itzazu honako testu hauek: Arantxa Iturberena (***kajoi bat ez da nahikoa***) eta Atxagaren (***obabakoak***) .. **Errepara iezaiezue testu horietan estilo zuzenean adierazitako elkarrizketei**

## PERTSONAIEN HITZAK ETA PUNTUAZIO MARKAK

### ➤ Galdera eta harridura-markak (!?)

Hitz egiteko modua nahiz hitzunaren asmoa islatzeko, esatezko aditzekin batera, galdera-eta harridura-markak erabiltzen dira. Puntuazio-marka hauen erabilerari dagokionez, izan itzazu kontuan honako hauek:

- Amaieran baino ez dira jartzen. Adibidez:

-kontuz, auto bat dator! -Oraindik ez duzu amaitu?

- Galdera- eta harridura-marken atzean sekula ez da punturik jartzen; koma eta puntu eta koma, ordea, eraman dezakete. Adibidez:

-Geldi!, ez mugitu!, norbait dator eta.

- Galdera- eta harridura-marken atzean kakotxa jartzen bada, amaieran puntua idatziko da.

Etxeon sortu bezoin ozkor eson zion: "Houek al diro etxeratzeko orduok?".

### ➤ Kakotxak (" ", « »)

- **Hitzek hitzeko aipamena** dela adierazteko erabili ohi dira.

*"Buruko minez nago" esan, eta oheratu egin zen.*

- Atzerriko hizkuntzetatik zuzenean jasotzen diren **hitz berriak edo ezezagunak** ere kakotx edo koma-txo artean jaso ohi dira.

*-Emadazu edari «light» horietako bat -esan zion barraren atzean zegoen mutilari.*

- **Izengoitiak** ere kakotx artean jaso ohi dira.

*'Tranpas' deitzen diogu; izan ere, gezurretan dabil beti.*

- **Ironia** edo esangura bikoitza adierazteko ere kakotxak erabili ohi dira.

*Azken hitza beti berea izaten zen "elkarrizketa" horietako batera gonbidatu gintuen.*

**Berridatz ezazu testu hau pertsonaiaren eta narratzailearen hitzak puntuazio-marken bidez bereiziz.** Jatorrizko testuan kakotxak erabili ditu autoreak zeregin horretarako. Egizu gauza bera

Teresak txoria zakarrontzi batean utzi zuen. Itzuli zenean, bere begi olio kolorekoak bustita zeuden. Gure lehen eztabaida izan da, David. Oso azkar hasi gara. Maitasuna lehenengo aldiz egin dugun egun berean. Jiratu eta zakarrontzira abiatu zen berriro. Zertara zoaz?, galdetu *nion*. *Baina banekien, txori hila berriro hartzeko asmoa zuen. Oihal polit bat bilatuko* dut, eta han bilduta lurperatu. Ez dakit nola bota dudan ontzi zikin horretara. Oso krudela izan da. Ni ere txori hau bezalakoa naiz. Idatziko dizut Pauetik eta zakarrontzira botako dituzu nire gutunak. Nik uste nuen Herman Hesserren otso hori bezalakoa zinela, arrapostu nion. Ez nengoen bere umore aldakorraren orpotik ibiltzeko prest.

Bernardo Atxaga, *Soinujoleoren semea*, Pamiela

Testu honetan, aldiz, marra luzea erabili du idazleak solaskideen interbentzioak bereizteko. Baina bada solaskidearen bakarrizketaren bat ere, kakotzez bereizi beharrekoa. Berridatz ezazu aipatutako markak testuan egoki txertatuz.

Nahi baino denbora gehiago egin du arropa aukeratzen. Orduko galtza parela besterik ez zaio geratzen. Bota egin zituen gainerako guztiak. Damutu egin da. Gero haserretu damutu egin delako.

Itxura onarekin joan nahi du Albertorengana. Ondo nagoela kontura dadin, ez beste ezergatik, esan dio bere buruari. Galtzak ondo dauzka oraindik. Gazteago dirudi. Munduko ipurdirik politena daukazu!

Esaten zion Albertok jantzen zituen bakoitzean. Jertse gorriak ondo egiten dio aurpegira.

Ilea bildu egingo du Mototsa, txirikorda ala moñoa? Hiru eratarata gustatzen zitzaion. Askatuta hobeto geratzen zaizu. Orduan zergatik nahi duzu biltzea? Begiratzen dizudan bakoitzean, askatzeko mementoa noiz iritsiko zain jartzen naizelako.

Askatuta eramatea hobe, oraingoan askatzeko mementorik ez zaiola iritsiko kontura dadin. Pintatu gabe joan da. Lehen bezala. Ez dut ulertzen Alberto! Pintatuta doazen neska guztien atzetik joaten zaizkizu begiak eta niri ez pintatzeko eskatzen didazu! Zuk ez daukazu pintatu beharrik polita egoteko, eta gainera, ez nuke nahi niri beste inori, atentzioa ematerik esaten zion, lepondoan musu emanez.

Arantxa Iturbe, *Leheñaqo zen berandu*, Alberdania

Berrikus itzazu zuen eleberrian idatzitako elkarrizketa-sekuentziak eta hobetu ondorengo alderdiei erreparatuz.

- Esatezko aditzei dagokienez, egoki islatzen al dute hitz egiteko modua edota hitzunaren asmoa? Merezi al du jarri duzuen bakarren bat beste batez ordezkatzea?
- Puntuazio-markei dagokienez, ondo bereizi al dituzue solaskideen hitzak? Zuzen aplikatu al dituzu horiei buruz landutako erregelak?

## 22. jarduera: zeuen eleberriaren azken berrikusketa

Egin iezaiozue azken berrikusketa zeuen nobelari, irakaslearekin batera kontrolzerrenda osatuz eta bertan jasotako alderdiei erreparatuz.

### BERRIKUSKETARAKO KONTROL ZERRENDA

#### GERTAKIZUNEN ARTEKO LOTURA

Eleberrietako gertakizunen lotura gauzatzeko bitarteko dira, besteak beste, denbora esapideak, erdaren eraginez, sarritan deseroso erabiltzen ditugunak. Hona kalko oker batzuen euskarazko ordezeko jatorrak.

Kalko okerra	Adierazpen egokia	Adibidea
- <i>Orain dela asko</i>	-Aspaldi(an). Esapide honek aditzak aspektu burutuan erabiltzea eskatzen du	- Aspaldian ez dut ikusi
- Dagoeneko eta honezkero baliokidetzat hartzea	-Dagoeneko esapidea ekintza buruturik dagoenean erabiltzen da eta ziurtasuna adierazten du  -Honezkero esapidea etorkizunari buruz ari garenean erabiltzen da eta ustea adierazten du	-Lana dagoeneko amaituta dago  -Lana honezkero amaituta egongo da
-Beste egunean/astean/urtean...	-Gaudeneko astea(hilabetea, urtea...) erreferentzia gisa hartzen denean, joan den/datorren formak erabiltzen dira  -Erreferentzia unea iragana edota etorkizuna denean, aurreko/hurrengo erabiltzen dira	-Joan den hilabetean bete nituen hamasei urte  -Datorren urtean beteko ditut hamasei urte  -Aste honetan ez, aurrekoan ikusi nuen  -Aste honetan ez, hurrengoan joango naiz

- Denbora esapideak egoki erabili al dituzu testuan?

### IDEIEN ARTEKO LOTURA

- Antolatzaileei erreparatuko diezue lehenik. Zerrendatu denon artean ezagutzen dituzuen antolatzaile motak (ideiak gehitzekoak, kausa nahiz ondorioa adieraztekoak...).
- Aurrez testuan aipatutakoari erreferentzia egiteko bitartekoak zuzen erabili al dituzue (Sinonimoak, erakusleak...)
- Puntuazio-markak?

### HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA

- Gogoratu hizkuntzaren zuzentasunari dagokionez ezagutzen dituzuen erregelak (deklinabidea,...)

### **23 Jarduera: eleberriaren azala hautatu**

Dagoeneko idatzita duzue eleberria eta gauzarik behinena geratzen zaizue oraindik: azala, liburuaren erakusleihoa.

- Taldean jarrita, bil itzazue unitatean zehar irakurritako liburuak eta behatu haien azaletako bitxikeriarik txikienei ere.

- Behatu liburu horien azalean ikusten dituzuen datuei eta egin gauza bera zuen eleberriaren azalarekin. Ohikoena: idazlearen izen-abizenak, liburuaren titulua eta mamiarekin lotutako marrazkia edo argazkia izaten da.

-Behatu kontrazaleko datuei, eta zuen eleberriaren kontrazala ere modu berean diseinatu. Ohikoena: idazlearen biografia eta argitaratu dituen obrak izaten dira.

-Behatu liburuaren atzeko aldeari, eta imitatu hura ere zuen eleberrian. Ohikoena: eleberriaren istorioa modu laburtuan kontatzea (laburpen tentatzailea) izaten da.

## UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?

- Euskal eleberrigintza tradizionala eta modernoa
  - Ezaugarriak
  - Gai usuenak
  - Egitura
  - Narratzailea
  
- Eleberria
  - Elementuak
  - Argumentua
  - Egitura
  
- Deskribapenaren funtzioa kontaketa
  - Pertsonaien deskribapena
  - Eszenatokien deskribapena
  
- Istorioaren denbora eta kontakizunaren denbora
  
- Pertsonaien hitzak
  
- ...

2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.

3. Zein jardun kostatu zaizkizu gehien?

4. Zein jardun kenduko zenituzke?

5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu.

6. Zure ustez unitate honetan ikasitakoa baliagarria da eskolatik at erabiltzeko? Zeintzuk?

7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea?

- Unitatearen edukiak:
- Erabilitako metodologia:
- Erabilitako materialak:
- Saioen erritmoa:

8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?